

# GRADUA: Ekonomia

2022/2023 ikasturtea

## **Bilboko etxebizitza arazoa** ***Desarrollismo* garaian**

Egilea: Mainer Vidaurrazaga

Zuzendaria: Igor Goñi Mendizabal

Bilbo, 2023ko ekainak 23

# Indizea

1. SARRERA.....	3
EDUKIA.....	4
2.1 Frankismoaren historia ekonomikoa .....	4
2.1.1 Espainia gerraostean (1936-1951) .....	4
2.1.2 Autarkiaren amaiera .....	5
2.1.3 Urrezko aroa. Nazioarteko ekonomiaren sarrera (1960-1973).....	8
2.2 Espainiako instituzio zein legeak etxebizitzaren arazoaren aurrean .....	10
2.2.1 Etxebizitza gerraostean.....	10
2.2.2 Alokairuen prezioak .....	11
2.2.3 Eraikuntzak bermatzeko legeak.....	12
2.2.4 Erregionalismoa.....	15
2.3 Bilboko egoera.....	16
2.3.1 Udal anexoak eta demografia .....	16
2.3.2 Bilboko arrazionalismoa.....	17
2.3.3 Bilboko esku hartzea .....	19
2.4 Txabolismoa .....	23
2.4.1 Txabolismoa ekiditu nahian .....	23
2.4.2 Arazo publikoa bihurtuz .....	25
2.5 Txabolismoaren “amaiera”: Bizkaiko Urgentziazko Plana.....	29
2.5.1 Otxarkoaga .....	30
2.5.2 Uretamendi .....	35
2.5.3 Altamirako inmobiliaria .....	36
3. ONDORIOAK.....	37
Bibliografia.....	38

## 1. SARRERA

Azken hilabeteetan, etxebizitzaren gaiak protagonismoa hartu du herritarren diskurtsoan. Kezkarik handienetakoa da, inflazioarekin batera. Gainera, lehentasun politikoen arabera kezka desberdinak sortzen ditu beste gai batzuetan ez bezala. Hori bai, biztanleria oro har, orientazio politikoa edozein dela ere gai honetaz kezkatuta dago. Etxebizitzaren arazoak gazteei ez ezik, familia askori ere eragiten die. Alde batetik etxebizitza errentak, soldataren proportzio handiena hartzen du. Beste aldetik, hipotekatutako etxebizitzaren interes tasak handituz joan dira.

Urte honetan sortu berri den etxebizitzaren politika eta honek dakarren legeak etxebizitzaren kultura berari erreparatzera eraman nau.

Ikasgelan landu genituen txabolismo arazoaren eta Otxarkoagako kasuak, jakin-mina piztu zidaten. Kasu zehatz horiek agerian utzi zuten biztanleriaren sektore batzuek etxebizitza duinak eskuratzeko aukera falta eta baztertze-egoera larria zutela. Atal horietan, bereziki txabolismoaren atalean, informazio deskriptiboa emango dut, nire helburua biztanleria hau nola bizi zen jakitea baita.

Lan honetan, zehatz-mehatz aztertzen saiatuko naiz etxebizitzaren arazoa sortzen lagundu zuten faktoreak eta honek eragin zituen ondorio sozial eta ekonomikoak.

Horretarako, lehendabizi, frankismoaren ekintzen norabideak hobeto ulertzeko, garaiaren historia ekonomikoa gainetik ikusiko dugu, gerraostetik 60ko hamarkadako amaiera arte. Bigarrenik, etxebizitzaren politikak eta esku-hartzeak aztertuko ditugu, diktaduraren eta Bilboko Udaletxearen aldetik. Ondoren, politika hauek izan zituzten ondorioak aztertuko ditugu. Hemen bi fase bereiz ditzakegu, lehenengoa, arazoari behar bezala ez erreparatzeagatik sortu zen txabolismoa, eta behin arazoari neurriak jartzerakoan sortu ziren eraikin motak.

Lan honetan, erakunde hauetara mugatu naiz, hala ere, nahitaezkoa da jakitea lege, plan eta erakunde askoz gehiago daudela etxebizitzaren arazoaren muinean.

# EDUKIA

## 2.1 Frankismoaren historia ekonomikoa

### 2.1.1 Espainia gerraostean (1936-1951)

#### a) Erregimen berriaren gastu kudeaketa

Gerraostean, lan-esku merke eta beldurtuarekin enpresa-errentagarritasunak lortu ziren, sindikatuak errotik kentzeak eta langile-klasea menderatzeak gose-soldatak orokortu zituztelarik (Preston, 2022). Gehiengoaren soldaten jaitsierak eta besteen aberasteak eskari aldaketa ekarri zuen, manufakturatutako produktuen kontsumoa jaitsiz eta luxuzko ondasun eta zerbitzua handituz.

Erregimen berriak gerran sortu zituen kanpo-zorrak berehala ordaindu ziren. Epe luzera inflazioa barne-zorrak likidatzeaz arduratu zen arren, epe motzean estatuaren gastuak guztiz murriztu ziren (Carreras eta Tafunell, 2010). Murriztu ezin ziren gastu militarretatik zetorren zorra. Okupazio militarrek 1943an aurrekontu nazionalaren %53,7 hartzen zuen (Preston, 2022). Ondorioz hasierako urteetan estatuak ez zuen inbertsio handirik egin, hala nola etxebizitzan edota azpiegituran.

#### b) Lehen frankismoaren ondorioak

Interbentzionismoak bi norabide zituen: prezioen eraketa eta baliabideen esleipena. Horrek makina burokratiko astun bat sortzea ekarri zuen, hainbat erakunde erregulatzailaz osatua. Ekonomiaren funtzionamenduaren ikuskera militarra zuten, non merkatuak, agenteak eta prezioak diskriminatuak izan zitezkeen. Horrek merkatua ez efizientea izatera bideratu zuen. Autarkiagatik eta dibisen urritasunagatik ere, ez zen asko inportatu. Dibisa-eskasia kanbio-politika desegoki baten ondorio izan zen, pezetaren prezio altuegiagatik. Horren guztiaren ondorioz, eskaintza urria izan zen, eta errazionamendu kartillak ezarri behar izan ziren, bai elikagai zein gainerako ondasunetan, lehen, bigarren eta hirugarren sektorean eragina zutenak eta 1952ra arte iraun zutenak (Carreras eta Tafunell, 2010).

Sektore siderometalurgiakoan, Bizkaian Espainian lortutako burdinazko eta altzairuzko lingotearen %60 zegoen. Baina 1941. urtetik aurrera zailtasun handiak sortu ziren lehengai batzuk inportatzeko. Altos Hornos-en, 1942ko urtea 1941ekin konparatuz burdin mineralaren ekoizpena %21 murriztu zen. Zementuaren industriak bere ahalmenaren %50ean lan egiten zuen, nahiz eta askoz eskari handiagoa izan. Zailtasuna harrikatzaren,

lubrifikatzaileen, horniketa siderurgikoen eta garraio urritasunaren eskasiak eragiten zuten (Gorostiaga, 1988).

Gobernarien lehentasun nagusia ekonomia eta defentsa nazionalerako interes estrategiko handia zuten sektore eta industriak indartzea zen, betiere autosufizientziarekin. Horregatik, ekoizpeneko jardueretan egindako inbertsio pribatu guztiak alde aurreko baimen administratiboaren araubidearen mende zeuden. Agintarien ustetan, enpresaburu pribatuek porrot egin zuten herrialdea industrializatzeko zereginean, eta, beraz, Estatu izango zen garapenaren eragile historikoa. Horretarako, Industriaren Institutu Nazionala (INI) sortu zen 1941ean. Bestalde, INI sortzeak enpresa berri askoren agerpena ekarri zuen, gehiengoa 40ko hamarkadan jaioa. Ala ere, inbertsio handienak 50eko hamarkadan egin zituen (Carreras eta Tafunell, 2010).

### **2.1.2 Autarkiaren amaiera**

#### **a) Espainia nazioartean eta ekonomia eredu berria: *Industrialización por Sustitución de Inportación (ISI)***

Bigarren mundu gerran Espainiak izan zuen jarreragatik (naiz eta bere burua neutralizat jo, estatu faxistei laguntzeagatik) eta diktadura totalean egoteagatik, 1950. urtera arte isolamendu diplomatikoa izan zuen. Baina 50eko hamarkadan, Frankoren diktadura gerraosteko nazioarteko testuinguru berri baten topatu zen. Izan ere, Gerra Hotzaren hasieran erregimenak Estatu Batuen interesa piztu eta 1953an bi herrialdeek Madrilgo Itunak sinatu zituzten, ondorioz, AEBetatik etorritako kapital transferentziei esker, Espainiaren defizit komertzial guztia finantzatu ahal izan (Carreras eta Tafunell, 2010).

Espainiak zuen nazioarteko kokapena hobetzea faktore erabakigarria izan zen atzerriko lehengai, ondasun-ekipo eta elikagai kopuru askoz handiagoak erosteko. Teknologia berria xurgatzeak hamarkadako produktibitatearen hazkunde handia eragin zuen. Ongarrien inportazioak nekazaritzaren suspertzea bultzatu eta elikagaien inportazioen murrizketa ekarri zuen (1948-1949 eta 1952). Horri esker, dibisak erabili ahal izan ziren industriak inputak inportatzeko (Carreras eta Tafunell, 2010).

Esku-hartze ekonomikoaren erlaxazioa indarberritze ekonomikoaren funtsezko arrazoietakoa bat izan zen. 1951an, Franco jeneralak gobernu berri bat eratu zuen (1956ra arte iraun zuena), izan ere Espainiako 40ko hamarkadako pentsaera ekonomikoaren ahuleziak, istilu sozialek (aurrerago deskribatuko ditugunak) eta gerran egon ziren gainerako herrialdeen berreskuraketek estrategia aldaketa eskatzen zuen. Bestalde, Estatu

Batuetara eta Mendebaldeko Nazioen komunitatera hurbiltzeak politika ez-autarkikoa eta interbentzionismoaren jaitsiera bultzatu zuen (Carreras eta Tafunell, 2010).

Hamarkada honetan bi joera inflazionista izan ziren. Lehenengoa 1950-1951koa izan zen. Prezioak kontrolatzeko prozesua 1950ean hasi zen ekoizleari aplikatuz, eta urtebete ostean azken kontsumitzaileari heldu zitzaion. Iristerakoan, eta ondorioz bizi-kostua handitzean, istiluak egon ziren. 1951ko urtarrilean, langileen artean ezegonkortasuna nabaria zen eta Bartzelonako tranbiaren tarifan igoerei erantzunez, tranbiari boikota egin zitzaion, boikota greba bihurtu zen eta errepresioa izugarria izan zen. Greba inflexio-puntua izan zen langile-mugimenduan, eta gobernuak prezioen igoera soldaten igoerarekin konbinatu zituen, soldata erreala mantentzeko asmoz. Horretaz gain, grebak ondorio zuzenak izan zituen gobernatzeko eran ere (Ramos, 1991).

Bigarren inflazioa, 1956koa, moneta-eskaintzaren hazkunderetik zetorren; Gobernuaren gastua (industria-produkzioaren propulsaioa) eta enpresa pribatuen kreditu-eskaera (helburu bera zuena) estaltzeko erabili zen moneta politika hedakorra (Martínez eta Nogues, 2014).

#### **b) Espainiaren barne ekonomia**

50.eko hamarkadan atzerriko kapitalak ihes egin zuen, estatuak jarritako trabengatik. (Vidal, 1995). Banku pribatu handiek tren-enpresetan akzio-interesak zituztenez, enpresa hauek nazionalizatzean jasotako konpentsazioei esker likidazio handia lortu zuten. Bankuek industria kontrolatzeko urrezko garaia ISIren urteetan izan zutelaren esan daiteke: Kapital-merkatuan zegoen lehia txikia atzerriko bankuen desagerpenarekin batera eman zen garaian, industria-ekimen pribatu guztiak bankuen esku utzi ziren, eta horrek garrantzi handia izan zuen erabakiak hartzeko garaian. Bankuen parte-hartze handia enpresek hamarkada honetan zuten errentagarritasunaren eta espektatiba ekonomiko handiaren ondorio da, batez ere Madrilgo Itunarekin, sozietate gehien sortu ziren urteetan, edota burtsaren hazkunde indizeak handituz gero. Espainian inbertsioak garrantzi handia hartu zuen: Inbertsio kuota %10 igo zen, aipatutako itxaropenengatik eta lortutako ekoizpen gaitasunagatik. 1956. urteko soldaten igoerak (nominak bikoiztu ziren) Eskaera agregatuaren Kontsumo pribatua handitu zuen eta manufakturen eskaera igoera eman zen. Ondorioz, barne industria handituz joan zen (Carreras eta Tafunell, 2010).

40ko hamarkadan, Barne Produktu Gordinarekin (BPG) hazkunde tasa oso motela izan zen arren (%0,7koa), 1950-1958 urteetan %4,9ra igo zen. Ekoizpen industrialari begiratzen

badiogu, hazkunde tasa hauek %8,8koak ziren urte berean. BPGan sortutako balio erantsia %25,7tik %36ra igo zen 1949an. 1958an Espainia industria-heldutasun osoa lortzeko zorian egon zen. Heldutasun hori bi zutabetan oinarritzen zen: inportazioak ordezte eta barne-eskaria zabaltzea, inbertsioa eta kontsumoa handituz (Carreras eta Tafunell, 2010).

### **c) Egonkortze plana eta bere aurrekariak**

Estatuak 1956tik aurrera etengabeko gainbehera jasan ondoren, 1959ko ekainean balantza negatiboa zeukan. Espainiak ez zeukan kanpo-ordainketak egiteko gaitasunik eta dibisa-erreserbak agortuta zituen. 50eko hamarkadako Espainiako ordainketa-balantzaren krisiak erregimenaren ideologia ekonomikoaren aldaketa ekarri zuen, eta egoera konpontzeko neurriak hartu behar izan ziren (Carreras eta Tafunell, 2010).

Bitartean Europar merkataritza aldaketa eman zen, 1957an Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE) sortzearekin batera, aduana-batasuna ezarri baitzen. Gainera, 1958an Europako monetak kanbio-tasa finko bat libreki aplikatzea lortu zen, eta horrek esparru egonkorragoa ahalbidetu zuen merkataritzarako eta kapital eta langileen nazioarteko mugimenduetarako. Orokorrean Europako herrialdeak kanpora begira zeuden, nazioarteko ekonomia bultzatzen zuen dinamika indartsu horri etekina ateratzeko (Carreras eta Tafunell, 2010).

Agintari frankisten gustukoa ez bazen ere, Espainia nazioarteko kapitalismoan birtxertatu zuten, kanpo-merkataritza liberalizatuz, atzerriko kapitala erakarriz eta nazioarteko lankidetzak ekonomikoko erakundeetan integratuz. Egonkortze planaren aurrekariak 2 urte lehenago hasi ziren: 1957ko otsailean, Francok gobernu berria eratu zuen, eta hauei teknokrata gisa ezagutu zitzairen (59ko Egonkortze Planaren egileak). Erregimenak egoera ekonomiko gogor bati egin behar zion aurre: Inflazioa, defizit publikoa eta kanpoko defizitarekin topatu zen (Carreras eta Tafunell, 2010).

1959ko uztailan, gobernuak egonkortze- eta liberalizazio-programa baten neurri nagusiak onartu zituen: Egonkortze Plana. Estatuak esku hartze eta itxiera ekonomiari uko egin zion. Nazioarteko Diru Funtzak eta beste erakunde batzuek 500 milioi dolar baino gehiagoko diru-laguntza jarri zuten Espainiaren esku, baina 74 milioi baino ez ziren behar izan. Kontsumoan eta inbertsioan berehalako ondorio kaltegarriak izan zituen arren, urtebete pasata, ekonomia oso azkar suspertu zen. Kontuan izan behar da Espainiak esportatu bazuen ere, esportazio horiek ez zutela ordainketa-balantza orekatzeko balio,

eta dibisak erabili zirela inportatzen jarraitu ahal izateko. Hiru dibisa garrantzitsu egon ziren: Emigranteen igorpenak, turismoa eta atzerriko inbertsio zuzena (Carreras eta Tafunell, 2010).

### **2.1.3 Urrezko aroa. Nazioarteko ekonomiaren sarrera (1960-1973)**

1960ko hamarkadaren amaieratik 1974ra, Espainiako ekonomiak inoiz ikusitako hazkunde azkarrena izan zuen. 15 urte horietan, hazkunde ekonomikoa %4tik gorakoa izan zen,. Ondorioz, BPG hirukoiztu eta errenta per capita %250 igo zen. Epe honi "urrezko aroa" deritzo, industrializazio prozesu azkarra izan baitzen. Historian "mirari ekonomikoa" bezala ezagutzen zaio ere (Carreras eta Tafunell, 2010).

1960 eta 1973 artean Espainian hazkunde ekonomiko azkarra bultzatu zuen sektorea industria izan zen, urteko %11.3 tasan hazi baitzen, beste sektore batzuk baino azkarrago. Egiturazko aldaketa hau 1965ean eman zen, lehen aldiz, lehen sektoreko enplegu kantitatea bigarren eta hirugarren sektoreko enplegu kantitateak baino txikiagoa izan zenean (Carreras eta Tafunell, 2005).


Aldi horretan, industriak BPGari egindako ekarpena etengabe handitu zuen. Hori izan zen egiturazko aldaketarik garrantzitsuenak: industriak pisua irabazi zuen enpleguan eta ekoizpen osoan, bereziki siderurgian.. Burdingintzaren loraldia burdinaren deribatuak eskatzen dituzten sektore berriekin lotuta zegoen (automozioa eta eraikuntza, bereziki). Aldiz nekazaritzak garrantzia galdu zuen BPGan. Bai 50 zein 60ko hamarkadan (INE, 2020).

Aurretik zetorren joera bat zen nekazaritzarena: Jada prezioen diskriminazioa kentzean, lur-jabeek interesa zeukaten nekazaritza efizientea bihurtzeko. Dibisak izatean, nekazaritzak inputak inportatzea ahalbidetu zuen, hala nola ongariak edota makinak. Ondorioz, nekazaritzaren modernizazioa eman zen. Nekazaritzaren modernizazioak alde batetik Espainian eskaintza izatea ekarri zuen, hau da, ez ziren hainbeste elikagai inportatu behar, jada Espainian produzitzen zirelako. Ondorioz, industriak dibisak erabili zituen inputak inportatu ahal izateko, eta berriro ere industriaren sektorea martxan jarri zen. Gainera barne eskaria haziz joan zen, manufacturetan adibidez.

Beraz, alde batetik, lehen sektoreak soberazko langileak zeuzkan, eta bestetik, industriak langileak behar zituen. Ondorioz, langileak lana zegoen tokietara mugitu ziren, hau da, hiri-eremuan zegoen industrializaziora, izan ere azken honetan soldatak altuagoak ziren. Horrek eskualdeen arteko desoreka handiak ekarri zituen.



1.Grafikoa: Espainiako probintzien migrazio saldoa, milaka pertsonan



Iturria: (Carreras eta Tafunell, 2005)

Grafiko honetan ez dago barneratua Espainiatik gainerako herrialdeetara emigratu zuen biztanleria, eskualdeen arteko mugimendua soilik agertzen da. Ondo ikusten den bezala, nahiz eta gerra baino lehenagoko tendentzia izan, mugimendu gehiena 1950eko hamarkadan eta batez ere 60ko hamarkadan ematen da. Ezin dugu ahaztu Estatuko populazio gehiena Andaluziak duela, eta horregatik hain zifra handiak dituela. Dena den, argi geratzen da migrazio saldoa negatiboa dela landa-eremua dagoen probintzietan eta aldiz positiboa probintzia nagusietan. Gainera, antzeman dezakegu nola probintzia gehienek migrazio saldo negatiboa duten, eta nola immigrazio gehiena Euskadi, Madril, Valentzia eta Kataluniara bideratzen den, biztanleria han kontzentratuz. Biztanleriaren kontzentrazio honek arazo larriak ekarri zituen, izan ere, saturazioa eman zen probintzia hauen hiriburuetan Saturazioak urbanismo, higiene, zein etxebizitza arazoak ekarri zituen. Egoera kontrolaezina bihurtu zen.

## **2.2 Espainiako instituzio zein legeak etxebizitzaren arazoaren aurrean**

### **2.2.1 Etxebizitza gerraostean**

Gerra hastean, honela laburbil zitekeen egoera: alokairuen izoztea mantentzen zen eta aurreko urteetan ustezko kooperatibismotik etorrirako etxebizitzak ez ziren behar adina sustatu. Izan ere langile klasearen beharra ez zen asetzen, hain zuzen ere ez zirelako ekonomikoki eskuragarri izan. (Bringas, 1964)

Etxebizitza falta izan zen gerraosteko arazo nagusietako bat berreraikitze-lanetan zegoen diktadura-erregimen berriaren arabera. Aurreko urteetako etxebizitzaren defizitaz gain, eraikuntza eta azpiegitura batzuek jasandako geldialdi, kalte eta suntsiketa, eta langileria falta (teknikari, profesional kualifikatu eta eskulana) gehitu ziren. Gerraosteko krisi larria ere bizi izan zen, finantziario falta eta eraikuntzako baliabide energetiko eta materialen eskasia ezaugarri zituen. Materialak arrazionalizatu behar izan ziren eta gainera prezioak etengabe aldatzen zihoazen. Gabezia horri ekonomiaren aldetik garatuenak ziren probintzietako biztanleriaren hazkundera gehitu behar zaio. Horren ondorioz, etxebizitza-eskaria nabarmen handitu zen, eta horrek bizitoki osasungaitzak, azpierrementamendua eta txabolismoa ekarri zuen hiriburu batzuetan (Muñoz, 2019)

1940an esaten zen Espainiako etxebizitzaren %30 osasungaitzak zirela, %45 akastunak, eta gainerako %25ak bakarrik betetzen zituela osasungarritasun baldintzak. Prekarietateak aurrera jarraitu zuen, eta 1945ean biztanleriaren %11 ez zen etxebizitzaren kostuak finantzatzeko gai. (Fonseca, 1945)

Etxebizitza egokirik eza ezegonkortasun politiko eta sozialaren osagai bihurtu zitekeen. Beraz, etxebizitzaren arazoak garrantzi handia hartu zuen erregimen berriaren gizarte-kontrolerako proiektuan. Horretarako, hainbat mekanismo eta erakunde eratu ziren.

Etxebizitza-politika diktadura-erregimenaren propaganda-tresna nagusietako bat ere bihurtu zen. Aurreko gobernu errepublikanoa kritikatzeko eta Estatu berriaren ustezko kudeaketa-gaitasuna goraiatzeko erabili zena. Hala ere, garai hartako arazo nagusietako baten konponbide zuzen eta eraginkor gisa baino, ekonomia aktibatze eta langabezia arintzeko elementutzat hartu ziren. (Sambricio, La vivienda en Madrid, de 1939 al Plan de Vivienda Social, 1999)

### 2.2.2 Alokairuen prezioak

Esan bezala, gerraosteko lehen urteetan, etxebizitzaren eskasiak izugarri igo zuen alokairuen prezioa. Estatistikako Institutu Nazionalaren datu ofizialen arabera, beti errealitatearen azpitik, 1941ean 112,2 puntu izatetik 1950ean 202,9 puntu izatera pasatu zen etxebizitzaren kostua. Inflazio ikaragarri horren aurrean, klase apalenak higiezin merkatutik kanpo geratu ziren. (Táboas, 2020)

Testuinguru hartan, maizterren gaineko iruzurrak eta gehiegikeriak ugaritu ziren eta babesik gabe geratu ziren. 1943ko urrian, adibidez, 62 urteko Malagako bizilagun batek, Antonio Reyk, engainua salatu zuen. 1934az geroztik, Kaputxinoen kaleko 33. zenbakiko ataria okupatzen ari zen familiarekin batera, non bizitokian ikazkintza eta goiko solairuko bi gela zeuden eta hilean 37,59 pezeta ordaintzen zituen. Urte hartako maiatzean, jabeak kontratu berri bat sinatuarazi zuen, eta, horren arabera, bi gelak hustu eta beheko solairuan instalatu behar izan zuten, alokairuaren prezioa bere horretan utzita. Kontratuan ataria bakarrik aipatzen zen, familiak«ikatzaren gainean» lo egin zezan. (Táboas, 2020)

Maizterren interesak jabeen interesen gainera jartzen zuten ondoz-ondoko errentamendu-legeak aldarrikatu ziren. Hala nola, maizterren egonkortasuna bermatzen zuten alokairuaren erabilera eta prezioak finkatuz. Ekimen honekin desautzio masiboak ekiditu nahi ziren. (Urbanos, 2018)

1946ko “Ley de Arrendamientos Urbanos”ekin (LAU), maizterrari nahitaezko luzapenerako eskubidea ematen zioten. Gainera, maizterra hilez gero, kontratua subrogatzeko eskubidea ematen zitzaion senitarteko eta oinordeko batzuei. Horrek esan nahi du hasiera batean adostutako prezioa errentamendu-kontratuak irauten duen bitartean mantenduko zela. (Díez eta Gullón, 2018)

Maizterra babesteko politikak, jabeek maizterren mesedetan sakrifizio ekonomikoak egitea eskatzen zuen. Neurri horrek gerra ondoren etxebizitza-eskasia arautzeko beharri erantzuten zion, Europako gainerako herrialdeekin urte batzuk geroago gertatu zen bezala, Bigarren Mundu Gerraren ondoren. 1964an LAUek aukera eman zuen alokairu-prezioak nolabait eguneratzeko. Hor ere, legea oso zehatza eta murriztailea izaten jarraitzen zuen kontratuaren nahitaezko luzapenari dagokionez, eta beste pertsona batzuk subrogatzeko aukera ematen zuen, hildako maizterraren ordeztu. (Ley de Arrendamientos Urbanos, 1964)

Jabeentzako baldintzak zertxobait leundu ziren arren, neurri horiek eragin kaltegarria izan zuten, alokairuen errentagarritasuna murriztu baitzieten jabeei, eta ordutik aurrera ez zuten berritserik egin pixkanaka degradatzen joango ziren eraikinetan. Errentagarritasun txiki horrek etxebizitza berrien eraikuntza ere geldiaraziko luke, sustatzaileek negozio-aukera gutxi ikusten baitzituzten.

### **2.2.3 Eraikuntzak bermatzeko legeak**

Lehen tresna legegilea "Etxebizitza Babestuen Legea" izan zen, 1939ko apirilekoa, eta 1911ko "Programa de Viviendas Baratas y Viviendas Económicas"en legea eta ondorengo legedi guztia ordezkatu zituen. 1939ko legeak *Instituto Nacional de la Vivienda* (INV) sortzea ezartzen zuen, frankismoaren etxebizitza-politika gauzatzeko administrazioaren erakunde nagusia izango zena. Urte horren amaieran, FET-JONSen Sindikatuen Delegazio Nazionalak, *Obra Sindical del Hogar* (OSH) sortu zuen, INVren erakunde laguntzailea. 1941eko urritik aurrera, OSH estatuko hainbat instantziatatik aurkeztutako alojamendu-proiektu gehienak bideratu zituen, eta, hala, estatuko erakunde eraikitzaile nagusia bihurtu zen. (Muñoz, 2019)

Aldi berean, *Dirección Nacional de Regiones Devastadas* (DGRD), 1938an sortua baina gerra amaitu ondoren eraginkorra, *Instituto Nacional de Colonización* (INC) eta *Dirección general de Arquitectura* (DGA), biak 1939an sortuak, arduratu ziren etxebizitzak sustatzeaz.

1940tik 1960ra bitartean, etxebizitza frankistaren politikaren arloko beste arau garrantzitsu batzuk aldarrikatu ziren; besteak beste, 1944ko "Etxebizitza Hobarigarriei buruzko Lege Dekretua" (hasieran "erdi-mailako klasearentzako etxebizitza" deitzen zena eta 1948an eguneratua). Dekretu horrek alokairuko etxebizitzaren eraikuntza ekimen pribatuari eranstea nahi zuen. Askoz garrantzitsuagoa izan zen 1954an aldarrikatutako legedia: lehenik eta behin, INVri etxebizitza sozialeko plan zabala garatzea eskatzen zion, OSHk aurkeztutako proiektuei lehentasuna ematen ziena; ondoren, dekretu berri batek erakunde sindikalaren barruan kokatutako ekoizleentzako errenta murriztuak dituztenen etxebizitzak eraikitzeke plan bat egitea eskatzen zion, eta horrek Francisco Francoren "Etxebizitza Plan Sindikala" ekarriko zuen [1954-60]. Azkenean, 1954ko uztailaren 15ean, "Errenta Mugatuko Etxebizitzak" babesteko legea onartu zen. Lege horrek, "Etxebizitza Babestuen" (1939) eta "Hobarigarrien" (1944) erregimenak ezeztatuz, Estatuko etxebizitza sozialen politika bateratu nahi zuen. (Táboas, 2020)

Are gehiago, klase ertainaren zati handi bati eragiten zien etxebizitza-premia larriaren dimentsio sozialak eta politikoak bultzatu zuen gobernuak "Etxebizitzaren Plana" martxan jartzera (1944-1954), eta horri jarraipena eman zion 1956tik 1960ra bitarteko "I. Etxebizitza Plan Nazionalak". Urgentziazko programa politiko-legegilearen emaitza bezala sortu zen *Ministerio de la Vivienda* 1957aren hasieran, eta haren buru izan zen Jose Luis de Arrese falangista nabarmendua, 1959.urtera arte. (Van-Halen, 2017)

Jose Luis Arrese bilbotarra, nazional-katoliko falangista izan zen. Eta falangismoa goraiatu eta faxismoari trabak jartzen zizkion. Falangearen eta, oro har, herrialdearen ideologia leuntzeko tresnatzat hartu zuten. *Ministerio de la Vivienda*-ren buru izan aurretik, Gorte frankistaren prokuradorea izan zen. (Zaratiegui eta García, 2017, pág. 504)

Agintaldian zehar, etxebizitzaren politika frankistan aldaketa erabakigarria gertatu zen, etxebizitza jabetzan sustatzeko eta alokairua bertan behera uzteko, etxebizitza mota berri bat sortuz, "Subentzionatuak".

1. Taula : Etxebizitzaren politika Espainian

PLANAK	ERAKUNDEAK	URTEA	ETXEBIZITZA SOZIAL MOTAK
-	-	1911-1935	"Programa de Viviendas Baratas y Viviendas Económicas"
1944-1954 "Etxebizitzaren Plana"	1939-INVren sorrera. 1941tik aurrerako OSHren garrantzia	1939-1954	"Etxebizitza Babestuen Legea"
1954-1960 "Etxebizitza Plan Sindikala"		1944-1954	"Etxebizitza Hobarigarri" edo "Erdi mailakoa"
		1954	"Errenta Mugatuko Etxebizitza"
			"I.Taldea"
			"II.Taldea"
1956-1960 "I. Etxebizitza Plan Nazionala"	1957-Ministerio de la viviendaren sorrera	1957	"Subentzionatuak"

Iturria: Testua laburbilduz sortua

Behin legedi guztiak aurkeztuta, termino batzuk hobeto definituko ditut:

Lehenengo etxebizitzak "Etxebizitza Babestuak" izan ziren. Etxebizitza horiek onura bereziak jasotzen zituzten, baina hala kalifikatzeko, alokairua sei eguneko soldata edo familia onuradunaren hileko batez besteko soldataren% 20 baino handiagoa ez izatea eskatzen zitzairen. Gainera, etxebizitza horiek eraikitzeak kostua ere 30.000 pezetakoa izan behar zen, hasieran behintzat. Etxebizitza-politika horrek eduki soziala bazuen ere,

erabilitako lehen irizpidea, onuradunen soldatetan oinarritzen zena, desegokia izan zitekeen, soldata-kantitateak askotarikoak zirelako.

Hurrengo urteetako etxebizitza motak, "Klase ertainekoak" eta "Hobarigarriak" izan ziren. Lege horien helburu nagusia etxebizitzaren eraikuntza sustatzea zen, eta 1939ko legerian aurrez ezarritakoa baino laguntza-sistema zabalagoa ezarri zen. Aurreko legerian ez bezala, ez zen mugarik ezarri etxebizitzak eraikitzeke kostuari dagokionez. Gehienezko alokairuetan murrizketak bazeuden ere, etxebizitza horiek prezio librean saltzea baimendu zen kasu askotan. Neurri horrek sustatzaileei eta eraikitzaileei salmenta aukeratzera bultzatu zituen, batez ere "Ley de Arrendamientos Urbanos"etik eratorritako murrizketak kontuan hartuta. Ondorioz, etxebizitza horiek errenta-maila handiko familientzat izan ziren batez ere, eta onura handiak ekarri zizkieten tartean zirenei.

"I Taldeko" etxebizitzak erdi mailako klasearentzako bideratua zeuden, kategoria altukoak ziren eta talde honi eskainitako laguntzak ez-zuzenak ziren. Ez zeukaten kostu ezta azalera mugarik. Etxebizitza hauek propietate moduan izateko aukera zegoen.

"II Taldeko Etxebizitza sozialek" laguntza zuzen eta ez-zuzenak zituzten. Muga nabarmenak zituzten azalerari eta eraikuntzaren gehieneko kostuari dagokienez. Muga horiek etxebizitzaren kategoriaren arabera ziren. Lehen (azalera gehien), bigarren eta hirugarren (azalera gutxien) kategoriakoak ziren. Etxebizitzaren gehienezko tamaina mugatzean, eraikuntza-kostuak kontrolatzea eta etxebizitza irisgarriagoak eskaintzea zen helburua. Bitxia da, haien helburua ikusiz, familien diru-sarrerei buruzko baldintza argirik ez sartzea. Izan ere sistema honetan oinarritzen zen: Kategoriazko sailkapenak egitean, etxebizitzak gainerakoak baino kalitate txikiagokoak izango ziren, eta horrek errenta-maila handieneko familiek etxebizitza horiek erostea eragotziko zuen. Beraz, behe mailako ondasunak balira bezala jokatuko lukete (Carbajal, 2003).

1957an ere, "Etxebizitza Subentzionatuak" agertu ziren. Etxebizitza horiek tamainari dagokionez mugak zituen, baina ez eraikuntza-kostuen murrizketarik. "I.Taldeko" pizgarri berberak jasotzen zituzten eta gainera etxebizitza bakoitzeko 30.000 pezetako diru-laguntza gehitzen zitzaion. Horrek eraikitzaileak eta sustatzaileak erakargarri zituen.

2. Taula :Etxebizitza sozialen ezaugarriak

ETXEBIZITZA SOZIAL MOTAK		Soldataren araberakoa	Laguntza ez zuzen	Laguntza zuzen	Kostu muga	Azalera muga
"Etxebizitza Babestuen Legea"		Bai	-	-	Bai	-
"Etxebizitza Hobarigarri" edo "Erdi mailakoa"		-	-	-	Ez	Ez
"Errenta Mugatuko Etxebizitza"	"I.Taldea"	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez
	"II.Taldea"	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai
	"Subentzionatuak"	Ez	Bai	ezberdintasuna 30.pezetako dirulaguntzan dago	Ez	Bai

Iturria: Testu honetatik ateratakoa

Araudi berri horren ezaugarriak zirela eta, ez genuke harritu behar "I. Taldeko Etxebizitzak" eta "Subentzionatuak" une hartan sustatzaile pribatuen gogokoenak izatea. Bestalde, "II. Taldeko Etxebizitzak", gastu publiko handiagoa zekartenak, erakunde publikoek sustatu zituzten batez ere. Gainera, garai hartako araudiaren arabera, bi taldeko etxebizitza-motak errentamendurako eta salmentarako erabil zitezkeen arren, alokairuen zenbatekoa finkatzeko muga konplexuak ezarri ziren, batez ere "II. Taldeko Etxebizitzetarako".

Garrantzitsua da nabarmentzea "I. Taldeko Etxebizitzei" buruz dagoen paradoxa; izan ere, salmenta-prezioa librea zen bitartean, alokairua mugatuta zegoen. Horrek, argi eta garbi, salmentaren alde egiten zuen, alokairuaren ordez.

### 2.2.4 Erregionalismoa

Gerraostean ekonomiaren sektore garrantzitsuena nekazaritza izaten jarraitzen zuen herrialde batean, Estatuak nekazaritzaren errentagarritasun produktiboa optimizatu nahi izan zuen, hiri handien hornidura bermatu nahian. Landa-garapenak nekazaritzaren exodoa eta hiri handietan sortuko zen kontzentrazioa saihestuko zituela uste zuten. Era berean, landa-mundua sustatzeak bizitza tradizionalaren balioak berreskuratzeko aukera emango zukeen. (Sambricio, Cuando se quiso resucitar la arquitectura. colección de arquitectura , 1983)

Jabetzak familiaren egonkortasun eta ongizatea zekarrela argudiatzen zuten, gainera aurrezkoa sustatzen zuen. Aurrezkoa sustatzen zen alde batetik familiak hipoteka bat ordaindu behar zuelako eta gastuak horra bideratu behar zirelako eta beste aldetik etxebizitzaren balioa handitzeko tendentzia duelako. Estatuari familien aurrezkoa

interesatzen zitzaion, etorkizuneko kapitala inbertsiora bideratu ahal zelako eta dirua zirkulazioan ez egotean inflazioa kontrolatzen ere laguntzen zuelako.

Landa-garapena erregimen berriaren programa ekonomiko eta ideologikoaren zati gisa, eta nekazarien bizi-baldintzak aldatu eta hobetzeko saiakera ere izan zen. 1939ko apirilaren 21ean, Francisco Franco diktadoreak, INV sortu zenean, honako hau adierazi zuen:

«Lotsagarria da Espainiako milaka familia osasungarritasunik gabeko eraikinetan bizitzea. Horrekin bukatu behar da, eta ziur nago bukatuko dugula. Dagoeneko aztertzen ari dira zer etxe mota eraiki behar diren, batez ere landa-etxebizitzari dagokionez. (...)

100.000 edo 200.000 etxe eraikiko ditugu epe laburrean eta geure baliabideekin egingo ditugu, inorengana joan gabe, horretarako laguntzarik behar ez dugulako. Espainiak baliabide gehiegi ditu klase ertainei eta proletalgoari zuzendutako etxebizitzaren oinarritzko arazoa konpontzeko.» (Instituto Nacional de la Vivienda, 1939)

Frankismoaren propaganda egon arren, etxebizitzaren egoera ez zen asko hobetu berrogeita hamarreko hamarkadan, berrogeiko hamarkadako arazo askok iraun baitzituzten. Egia da, azkeneko urteetan, 1944tik aurrera, erregimena eraikuntza-politika ausartagoa bultzatzen hasi zela, nahiz eta klase ertainetara zuzenduta zegoen batez ere. Pixkanaka diktadura etxe "merkeak" eraikitzen hasi zen, baina politika hori ez zen behin betiko bultzatu hirurogeiko hamarkadara arte. Gainera, gero eta landa-exodo handiagoa zela eta, hiriek gainezka egin zuten, eta ez ziren gai iritsi berriei, barraketan kontzentratu zirenei edo haien kabuz txabolak edo etxebizitza inprobisatuak eraikitzen hasi zirenei, bizitoki duinak eskaintzeko. (Táboas, 2020)

## **2.3 Bilboko egoera**


### **2.3.1 Udal anexoak eta demografia**

Bilboren espazio falta hasieratik egon den arazoa izan da. Jada Abando anexionatu zenean, 1890ean, Lehenengo Industrializaziotik zetorren jendea ez zeukan tokirik hiriburuan, han izan ziren espekulazio eta etxebizitza faltagatik, eta ezker aldeko herrietan eta Erandion finkatu ziren, fabrika alboan. Enpresa garrantzitsuenek "Casas Baratas" bezalako jardunaldiekin haien langileentzako etxebizitzak eskaintzen ibili ziren. Espazioa handitu nahian 1925ean Deustu anexionatu zen, Lutxana eta Begoñako eremu batzuekin batera. 1940an, Erandio osoa anexionatu zen, azalera eta biztanleria nabarmen



handituz. Azken anexioa 1966an burutua, Loiu, Sondika, Derio eta Zamudio izan ziren, Plan Komarkalaren bidez. Hor eman zen hedadura handiena espazio kontuan, nahiz eta herri hauen biztanleria ez zen handia. Hala ere, azken anexio honek ez zituen emaitza onak izan, izan ere, herrixka sateliteen eta hiriburuaren arteko komunikazioa murrizta zen eta biztanleria finkatu beharrean, gehienez instalazioak eraiki ziren Txorierriko herrietan. Beraz hedapen plan hura alde batera utzi eta 80ko hamarkadan desanexioa eman zen.

1. *Grafikoa : Bilboren biztanleria hazkundera*



*Iturria: Udal Artxibo Digitala*

Bizkaia herrialde industrializatu bat izanda, eta bai lehenengo zein bigarren industrializazioan garrantzi handia izanda, ez da harriztekoa bere demografia hazkundera. Jakinda Deusturen distrituak eta Erandiok populazio altua dutela, normalena izango litzateke bai 1925 zein 1940 urteetan izatea Bilboko biztanleria hazkundera handiena. Hala ere, hazkundera nagusia 1950-1970 urteetan ematen da. Hazkundera honek bi azalpen ditu: nekazal-exodoagatik etorritako immigrazioa (Bizkaiko herrialdeetatik zetozenak eta gainerako probintzietatik) eta ekonomia hazkundera dakarren hazkundera naturala.

### **2.3.2 Bilboko arrazionalismoa**

Egoerak paradoxa interesgarri bat zuen: landa-munduaren garapena eta modernizazioa, non jabetzako etxebizitza funtsezkotzat jotzen baitzen, neurri handi batean Bilbo bezalako industria-guneen bultzadaren mende zegoen. Gune horiek komunikazioak

hobetzeko, makinak hornitzeko eta landarako behar ziren produktu kimikoak eskuratzeko gaitasuna zuten. (Muñoz, 2019)

Aldi berean, hiri-enpresariak, Bilbokoek adibidez, industria-jarduerekin jarraitu nahi zuten. Gainera, gerraosteko berreraikitze-beharretan galdu nahi ez zituzten negozio-aukerak zeuden. Aukera horiek aprobetxatzeko, helburu ekonomikoetara egokitutako etxebizitza-politika behar zen.

Landa-munduaren garapenaren eta hiriguneetako merkataritza-aukeren arteko interes-dualtasun horrek erronka planteatzen zuen ikuspegi eta behar horiek bateratzeko moduari dagokionez.

Ondorioz, diktaduraren lehen urteetan, Estatuaren interesak eta Bilboko tokiko enpresaburuak eta haien erakundeak gatazkan sartu ziren. Estatuak landa-mundura bideratutako ekonomia eta jabetzan oinarritutako etxebizitza-politika sustatu zituen, hiri-kontzentrazioak saihestuz. Izan ere, Estatuaren ekintzek alde batera utzi zituzten Bilbo eta beste hiri batzuk, eta, kasurik onenean, metropoli-barrutian sakabanatutako proiektuetara mugatu ziren, altuera txikiko eraikinekin. Sustapen txiki hauek programa ekonomiko eta ideologiko baten zati gisa egin zen, baina ez uneko beharrei erantzuteko modu gisa. (Muñoz, 2019)

Frankismoaren mundu zibilarekiko, hiriarekiko eta burgesarekiko duen mesfidantza agerian geratzen da J. M<sup>a</sup> Areilzak, orduko Bilboko alkateak, Bilbo garaitu eta egin zuten diskurtsoan: «Pribilegio-erregimenak [...] benetako giza zentzua du, non lana gizarte-hierarkiaren eskalako lehen balioetako bat den. Garaitu duen Espainiak jakingo du klaseak interes nazionalaren zerbitzura jartzen. Ez da greba gehiagorik egongo, baina kontzientziarik gabeko espekulatzailerik gehiagorik ere ez. Ez dira langile gehiago Errusiaren zerbitzura egongo, baina ere ez dira, aberriari beharrean, urrezko zekorraren zerbitzura soilik dauden finantzarioak existituko.» (Areilza, 1937)

Egoera horren aurrean, tokiko enpresaburuak kontrolatutako Bilboko Udalak bakarrik eraiki zituen alokatzeko bloke altuak, hiriburuko langileen etxebizitza-eskasia arintzeko asmoz. Hala ere, Estatuaren ekonomia- eta etxebizitza-politika 1944an hasi zen aldatzen, inbertsio pribatuarekin batera, eta bat egin zuen etxebizitza publikoen udal-jarduerarekin.

Ikuspegi-aldaketa horri esker, Estatuaren eta Bilboko Udalaren arteko lankidetzari handiagoa lortu zen, eta horrek erantzun eraginkorragoa eman zien hiriko etxebizitza-

beharrei. Ordutik aurrera, etxebizitza publikoak eraikitzeari ekin zioten programa bateratuak ezarri ziren, eta hiriguneetako etxebizitza-arazoak konpontzeari eman zitzaion lehentasuna.

### **2.3.3 Bilboko esku hartzea**

1941ean, Mugimenduaren Ministro Idazkari Nagusia eta geroago Etxebizitza Ministroa izango zenak, Arresek, hau zioen: Bizkaian, nekazarien etxebizitzaren ohiko antolaketaren ondorioz, herri ruralaren arazoa ez da hain larria, baina industriako eta meatzaritzako langileena, aldiz, beldurgarria da. Bada datu bat: Bilbon hamaika mila familiak (%25) ez dute etxebizitzarik, eta azpierreentatuta bizi dira, etxebizitza zeken bat okupatuz, beste bi eta hiru familiarekin batera. (Arrese, 1941)

1942an, 199.253 biztanle zituela, Bilbon etxebizitza independenterik gabeko 12.000 familia inguru zeudela kalkulatu zen. Kopuru hori 14.000ra igo zen 1945ean, 217.551 biztanlera iritsi zenean. Gainera, bizigarritasun-egoera txarraren ondorioz berreraiki edo egokitu behar ziren etxeen kopurua gehitu zen; 1942an 8.000 izango zirela kalkulatu zen. (El problema de la vivienda en Bilbao, 1942)

Estatuko etxebizitzaren Bizkaiko lehen promozioak hainbat erakunderen aldez aurreko koordinaziorik eta planik gabe egin ziren, hala nola “Central Nacional Sindicalista” (CNS), OSH, Bizkaiko Gobernu Zibila eta DGA. Hala ere, DGRDk eta INCK ez zuten parte hartu Bilboko metropoli-barruan. 1944ra arte, estatuko erakundeek guztira 480 etxebizitza planifikatu zituzten, eta horietako bat ere ez zegoen hiriburuan edo biztanleria nabarmena zuten udalerrri industrialetan, hala nola Barakaldon. Zehazki, 1940an Bilbok herrialdeko biztanleen% 57,23 zuen, eta Barakaldok% 10,22. (Ustarroz, 1976)

1939ko abendutik aurrera, CNSk, Falangeko langileen eta enpresaburuen sindikatu bertikalak, estatuko etxebizitzaren lehen sustapenei ekin zien herrialdean, eta OSHk bere gain hartu zituen 1941. urtetik aurrera Bilboko metropoliaren zenbait fabrika eta udalerritara zabaldu zen. Bertan, 296 etxebizitza proiektatu zituen hainbat enpresa pribatuk bultzatuta, eta 1944tik aurrera langileentzako etxebizitzak eraiki behar izan zituzten. (Muñoz, 2019)

Hala ere, proposamen batzuk, garaiko eraikuntza asko bezala, urte batzuk gehiago behar izan zuten eraikitzeke, eta, beraz, uneko etxebizitza-beharrei erantzuteke. Kasu guztietan, sakabanatutako etxebizitza-talde txikiak izan ziren; jabetzako etxebizitza familiabakarrak, estetika erregionalismokoak. Gainera, 1920ko hamarkadako "Casas

Baratas" ekimenek bezala, etxebizitza horietako gehienek lursail txiki bat zuten, baratze gisa erabil zitekeena. Helburua langile industrialen etxebizitza-beharrak asetzea zen eta, aldi berean, hiritik kanpoko bizitza sustatzea, hori baitzen une horretan erregimenaren apustua. (Muñoz, 2019)

Estatuak familia bakarreko etxebizitzak eraikitzea sustatzen zuen hiriko gune nagusietatik kanpo, eta Bilboko Udalak, berriz, gutxieneko habitata zuten etxebizitzak aukeratu zituen, alokatzeko helburuarekin. 20ko hamarkadan garatu zenari jarraipena eman zion etxebizitza publikoaren politika izan zen. Hala ere, udal-ekimenek ez zuten Estatuaren laguntza ekonomikorik izan INVren bidez, eta Udalak finantziazio-neurriak hartu behar izan zituen higiezinaren sustapenak egiteko.

Lehenengo udal proiektua, Solokoetxe III taldea, udal arkitektoek (1939-41) egindako diseinua izan zen. INVren ezezkoaren ondoren, Institutuak ematen zituen onurak lortzeko moduari buruz informatuz, 1.000 etxebizitza publikoren proiektua proposatu zuen, hiriburuko sei tokitan banatuz: Solokoetxe (46 etxebizitza), Santutxu (165 eta 56), Basurtu (268), San Mames (52), Madariaga dorrea (285) eta San Pablo mendia (128). Horrela, etxebizitza mota horien kontzentrazioa saihestu nahi izan zen. Kokaleku berriak aukeratzeak, hiriak hurrengo urteetan izan zuen hedapen-mugak markatu zituen, eta aukeratutako eremuetan beste ekimen batzuk urbanizatzeko eta eraikitzeko irizpide gisa balio izan nahi izan zen. (Muñoz, 2019)

Hala ere, INVk ere ez zuen proiektua babestu, plana onartu bazuen ere, kostu osoaren %40 finantzatu baitzuen. Kostu hori ohikoa zen jabetzako etxebizitzetan, baina ez zen bideragarria alokairuko etxebizitzetarako. Gainerakoa Udalak eman beharko luke, proposamena onartu zuten hainbat banketxeri mailegua eskatuz. Egoera horren aurrean, 1941eko ekainean, Batzordeak bere egitura eta baliabideak birmoldatu eta berrantolatu zituen, eta "Sociedad Inmobiliaria Viviendas Municipal Sociedad en Comandita" sortu zuen, "Klase ertainerako eta langile-klaserako alokairuko etxebizitza publikoak" finantzatzeko eta eraikitzeko ardura zuena. (Muñoz, 2019)

Udal enpresa berriak hiru finantzazio izan zituen: estatukoa, udalekoa eta pribatua. Alde batetik, erakundeak etekina atera ziezaiekeen INVk ematen zituen estatuko laguntza eta abantailei, bai eta higiezinaren sozietateentzat berriki onartu zirenei ere, sektore pribatuaren eraikuntza sustatzeko. Bestalde, entitateak hainbat udal baliabide izan zituen: Etxebizitza Batzordearen ondarea (alokairuak eta lursailak) eta eraiki gabeko lursailen gaineko udal

zergak. Hala ere, finantziazio-iturri nagusia akzioen jaulkipenaren bidez lortutako kapital pribatua zen. Azken finean, Udalak ulertu zuen kapital pribatua eskuratzea zela etxebizitza publikoaren politika gauzatzeko modu bakarra. Handik gutxira, 1941eko azarotik 1942ko martxora bitartean, Monte San Pablo eta Torre Madariagaren lanak hasteko lehen ekintza egin zen.

*1.Irudia: Torre Madariagaren auzoa*



*Iturria: Udal Artxibo Digitala*

*2.Irudia: Grupo San Pablok eraikitako etxe mota*



*Iturria: Archivo de Viviendas Municipales de Bilbao.*

San Pablo mendia INVk gustuko zuen familia bakarreko etxebizitzaren eredua zen, eta Udal ekimeneko Torre Madariagak berriz, etxebizitza-blokeak proposatzen zituen. Material faltagatik, azken hau izan zen izan zen eraiki zen bakarra eta 1944an Diktadorea etorri zen inauguratzera.

### a) San Ignazio auzoa

Honen ostean, 1944an, aurreko atalean azaldu dudan bezala, Estatuaren erregionalismo pentsaera horrek aldaketa izan zuen, kapitalari begira zegoen, eta ondorioz bai udaletxea zein estatua bloke eran eraikitzen hasi ziren.

Ondorioz OSHk “erdi-mailako klaseen etxebizitzak” bideratu zituen San Ignazio auzoan, eta udal-estrategiari jarraituz, Deustu inguruan kokatu zen, lurraren topografia laua zela eta. Horrek eraikuntza merkeagoa ahalbidetzen zuen. Proiektua 1944an idatzi zen. Hiriko erdigunetik kanpo, auzoen artean nukleoak sortzen ziren, blokeak ilara paraleloetan edo U forman elkartuta, etorkizunean zabalkuntzak egiteko aukera emanez. (García, 2013)

*3.Irudia: San Ignazioren planoak*



*Iturria: Irakasleak luzatua*

Proiektuan kirol-eremu bat sartu zen, bi plaza, eliza batekin eta Falangeko etxearekin, erregimenaren kultura ofizialarekin bat datorren arkitektura klasizista bati jarraituz. Eremu publiko horiek gobernuak sustatutako balioak irudikatzen zituzten, hala nola erlijioa, "Mugimendua" (Falange) eta kirola. Zailtasunak eta kostu gehigarriak izan arren, garrantzi berezia eman zitzaion kirol-eremuari. Obren hasierako aurrekontua 48.471.104,39 pezetakoa izan zen 1945ean hasi zirenean, baina azken kostua 90 milioi pezetatik gorakoa izan zen bost urte geroago. Sei milioi pezeta kirol-zelairako erabili ziren. 1950eko ekainaren 22an, Francisco Franco diktadoreak San Inazio eraikin taldea

inauguratu zuen, nahiz eta lanak ez ziren 1951ko otsailera arte amaitu. Proiektu hau plan zabalago baten hasiera gisa aurkeztu zen, hurrengo urteetan beste 1.500 etxebizitza eraikitzea barne hartuko zuena. Herrixka berri horren sorrerarekin, Estatua Bilboko etxebizitzaren eraikuntzan finkatu zen, ordura arte udalaren ardura izan zena, eta gerrarteko Europako esperientzietan oinarritutako hazkunde-eredu bat sustatu zen. (Muñoz, 2019)

Udalak udal-etxebizitzak eraikitzen jarraitu zuen, hiriaren hazkundearen eta hedapenaren zati gisa. 1944tik aurrera, enpresek erositako akzioak jaulki ziren, legez behartuta baitzeuden langileentzako etxebizitzak sustatzera. Lortutako funtsekin, Alde Zaharretik gertuko eremuen eraikuntza eta urbanizazioa osatu nahi zen. (Muñoz, 2019)

Etxebizitzaren arazoa konpondu gabe zegoen oraindik, batez ere baliabide gutxien zituzten klase sozialen artean. Estatuaren sustapeneko etxebizitzak jabetzan oinarrituak ziren batez ere, eta horrek sarbidea mugatzen zuen. Bestalde, alokairuko udal etxebizitzak udal langileentzat edo *Viviendas Municipales*-en akzioak erosi zituzten enpresentzat erreserbatuta zeuden. Etxebizitza horiek merkatu librearen antzeko alokairu-prezioak zituzten, eta horrek ere bazterten zituen baliabide gutxiagoko pertsonak.

## **2.4 Txabolismoa**

### **2.4.1 Txabolismoa ekidin nahian**

Nahiz eta 50.eko hamarkadan begi-bistaz ikusten zen arazoa izan, 1944tik aurrera bazegoen txabolen existentzia proba. 1943. urtetik hasita Bilboko Udaletxera karta bidezko eskakizunak iritzi ziren, herritar zein momentuko immigranteenak, txabolak eraikitzeko baimenak eskatuz. Txabola horien planoak 6x6 metroak ziren, Udaletxearen lurzoruetan eraikitzeko asmotan. Paseo de los Cañosen edota Monte Cabras bezalako lurzoru ez urbanizatueta. Udaletxearen erantzuna orokorrean ezezkoa izan zen. Mota horretako eraikuntzak nekazaritzarako edo biltegirako bakarrik onartzen ziren, etxebizitza gisa erabiltzen baziren ez baitzuten behar adinako higienarik ezta estetikarik. (Simón, 2023, pág. 54)

Jende honen egoera latza zen, familia batzuek ez zuten logelarik topatzen Bilbo osoan zehar, beste batzuek ez zuten errenta nahikorik logelaren alokairua ordaintzeko.

Hasiera batean, nahiz eta Udaletxeak ezezkoa eman, txabolistek ez zuten errepresiorik izan txabolak baimenik gabe jartzeko orduan. Udaletxeak beste alde batera begiratu zuen, bazekielako ez zegoela soluziorik epe motzean. Hala ere, txabolen eraikuntza

esponentzialki handitu zenean, Udaletxeak sasiofentsiba moduko bat erabili zuen: teilatutik ez zuen eraikuntza multzo bat eraistea. Eraikitzen ari zirenak salatzen ziren, eta 48 orduko epea ematen zitzaizkien haiek eraisteko. Horrela ez balitz, eraikuntza eraitsiko zieten eta gainera izuna ordaindu beharko zuten. (Simón, 2023, pág. 59)

Sasiofentsiba horrek ez zuen txabolen arazoaren hazkundera ekidin, beraz pixkanaka, Bilbo dotorea txabolez inguratuta geratu zen. Ikertzaileek burdinazko hesiaren antza atera zioten, beraz “El cinturón de hojalata” deitu zioten fenomeno horri. Gainerako probintzien hiriburuetan ere fenomeno hau gertatu zen.

Bi mito nagusi daude txabolen inguruan. Lehenengoa, txabolak gauez egin behar zirela. Mito hori erraz desmontatzen da jakinda langileak 10 orduz lan egiten zutela eta zeukaten tarte bakarra gaua zela. Bigarrena, teilatua izan behar zuela behin goiza iristerakoan. Mito hauek lege bihurtu ziren txabolisten artean. « Herriko norbait iristen zenean, gauez gizontaldean artean antolatzen ziren, berrogei arte gizon txabola bat altxatzeko, eta horrela, guardiak etortzen zirenean teilatua zuten eta txabola eginda zegoen, eta ez zuten eraistera behartzen . Baina egunean zehar egiten ikusten bazuten, eraistea behartzen zuten». (Simon, 2014)

«Benito de Eguren y Goiri enpresaburuak, 1946an, Elkano kaleren alboan sortutako hainbat txabolisten aurka jarri zuen denuntzia. Eraikuntza horiek ez zetozen bat zonalderako zituen planekin: «Urbanizazioa eta saneamendua»rekin. Han altxatu ziren txabolek taberna eta denda funtzioa betetzen zuten, beste batzuek etxebizitza gisa balio zuten, eta gutxi batzuek, berriz, astoen ukuilu gisa. Enpresaburuak ukalezina zela uste zuen lursail horien erabilera «desegokia» zela, kontuan hartuta txabola-auzo txikia kokatzen den kaleen «kategoria». Horregatik, aberastasun handiagoa sortzeko eta bulegoak bertan eraiki nahi zituelako, txabolak eraisteko eskatu zion Udalari. Alkateak kaleratzeko agindua 1947ko otsailaren 4an sinatu zuen, hainbat familia etxerik gabe utzita. Egoera horren aurrean, kalean geratu ziren familiek ezer gutxi egin zezaketen, beren ondasunak hartu eta mendira igo ezik, tamainaz etengabe handitzen ari zen txabola-auzoetara.» (Simón, 2023)

«Renfek berak 1951. Urtean salaketa egin zuen, txabola auzoa bere lurzoruetan kokatuta zegoelako, San Antonio zubiaren azpian edota San Mames eta tren errailen artean. Renferen inspektorearen hitzetan, egurrezko txabola horiek 1942an kokatu ziren zubi azpian, eta 22 familiek osatzen zuten auzoa, 98 pertsona, batzuk bizkaitarrak, beste batzuk



Galizia zein Castillakoak. Nahiz eta urtebete ostean jendea etxegabetu eta auzoa suntsitu, berriz ere bizitoki bezala erabili zen, estadioaren parean.» (Simón, 2023)

Udalak tolerantzia gabeko jarrera zorrotza zuen hiriaren erdigunean edo hiriguneetan eraikitako txabolen aurrean. Antzeko egoeran zeuden familia askok, Bilbo erdian zeuden txaboletan bizitzen ari ziren horiek, bide beretik jo zuten: etxebizitza mendiko lursail publikoetara eramatea. Eremu horietan, udal-arduradunen zorrotasuna txikiagotzen zen, izan ere, lur horietan ez zuten oztopatzen, printzipioz, ez hiriaren garapen urbanistikoa, ez jabe partikularren interesak. Horrek erakusten du txabolen artean lege ez-idatzi bihurtu zen mitoa, jada zutik eta teilatua zuten txabolak bota eta botatzeko ezintasuna, faltsua zela. Etxolak eraisten ez baziren etxebizitzaren arazoa ez larritzeagatik zen. Hala ere, txabolek interes pribatuak edo Udalarenak oztopatzen zituztenean, eraitsi egiten zituzten.

Gertaera bat egiaztatzeko ere balio du: erakundeek horrelako eraikuntzak eraikitzea debekatzen bazuten ere, behin auzokideek gune finko bat osatzen zutenean, eraistea zailagoa zen, eta Udalak beste alde batera begiratzea erabakitzen zuen.

Txabolak zabaltzen jarraitu ziren inolako plangintzarik gabe, eta fenomenoak arazo publikoa izan zen azkenean. Baina inork ez zuen horretaz hitz egin nahi. Nahiz eta txabolak gerraosteko lehen urteetatik existitzen ziren, Bilbotarrek ez ikusiarenak egiten zuten. 1954ko martxoaren 10ean agertu ziren lehen aldiz txabolak prentsan, La Falangeko Lurralde Kontseiluak Bizkaian egindako bilerari buruzko albiste baten barruan. Bilera hartan, txabolismoaren arazoari buruz eztabaidatu zen, «aski ezaguna» baitzen, eta haren azalpena, albistearen arabera betiere, Bizkaiko industria-garapenaren ondoriozko migrazio-masa handian zegoen. La Falangeko Kontseiluak adierazi zuen migratzaile horiek gabe ezinezkoa izango zela hazkunde ekonomikoa. Arazoa konpontzeko ardura, beraz, Erregimenaren arabera, euskal industria-klasearena zen, fabriken eta ontzi-entresen jabeena, tailerren eta siderurgiaren jabeena. Jabeek langileentzako etxebizitzak eraiki behar zituzten. La Falangeko Kontseiluak ondorioztatu zuen, egoeraren larritasunaren aurrean, beharrezkoa zela azterketa zehatz bat egitea, Bilbon etxebizitza-beharra zehaztea eta txabolen «irudi lotsagarria» ekarriko zuten irtenbideak bilatzea, etxolen eraikuntza berriak geldiaraztea eta lehendik zeudenak eraistea. (Simón, 2023)

#### **2.4.2 Arazo publikoa bihurtuz**

Erregimenaren erakundeetako batek alarma piztu ondoren, fenomenoak ospea irabazi zuen iritzi publikoan. 1954ko martxoaren 12an, lehen albistea argitaratu eta bi egunera,

La Gaceta del Nortek honako titular hau argitaratu zuen lehen orrialdean eta letra larriz: « Bilbon 450 txabola daudela kalkulatzeko da, etxebizitza guztien %1». Esan beharra dago datu hauek errealitate oso urrun zaudela, baina gutxienez publikoa egin zen arazoa. Albistean, kazetariak Arraiz mendiaren magalean zegoen «Bilboko txabola auzo handienera» egindako bisitaren berri eman zuten: Uretamendi. Fenomenoaren ezaugarriak eta arazoaren tamaina bertatik bertara ezagutzeko, 100 txabola eta 400 biztanle inguru aurkitu zituen. Denek zuten lana, etxebizitza duinik ez ordea. Garai hartan, Bilbon, etxebizitza baten alokairua batez beste 200 pezetatik gorakoa zen eta gela batena 50 pezetatik gorakoa.

Arazoa konpontzeko, agintariek hainbat proiektu diseinatu zituzten. Arkitektura Sailak, Gobernu Zibilak eskatuta, txaboletako biztanleei etxebizitza duina emateko etxebizitza sozialak eraikitzeko hainbat gune proposatu zituen, mendietatik di. Asmo horiek ez ziren inoiz paperetik atera. Bitartean, txaboletako auzoek etengabe hazten jarraitu zuten.

Auzo asko sortu ziren Bilboko mendien hegaletan sakabanatuta. El Peñascal eta Irusta bezalako kokaleku altuetan, txabolak hiri osotik ikusten ziren, 1950eko hamarkadaren amaieran 30 auzoraino baitzeuden: Eskuinaldean, Artxanda mendian, Cabras mendian, Banderas mendian edo Ugaskon.; Erandioko Arriagasen; Ezkerraldean Iturigorri, Ollargan eta Arraiz mendiaren mazetak, “El Castillo”, “Monte Caramelo” eta “Zorroza”. Beste kategoria bateko etxetxoak ere bazeuden Kaputxinoetan, Luis Briñas kalean edo gaur egungo Abandoibarran, trenbideen ondoan. Horrek ez zuen itxura honik ematen garapen ekonomikoaren bila zegoen hiri burges batean. Baina etxola horietan zeudenak ziren ekonomiaren garapena errazten zutenak. (Benitez, 2021)

Bilboko Udalak berak ere txabolistaren hazkundeaz ohartarazi zuen, «hazkunde demografiko natural bizkorrari eta, batez ere, immigrazio masiboari egozten baitzion, eskualdeko industrializazio-erritmo bizkorraren eta etxebizitza egokien eskasiaren ondorioz». Udaltzaingoaren bidez, txabolen errolda egin zuen urte horietan. 1955. urtean 842 txabola eta 3.702 biztanle zenbatu ziren. Erregistratutako auzoetako batzuk gaur egun Erandiokoak diren lurretan daude, baina 1955ean Bilboko Udalaren administrazioaren pean zeuden. Bizilagunen jatorri geografikoa ikusiz, gehienak Bizkaitik kanpokoak ziren, eta Gaztela eta Leon, Andaluzia eta Galizia ziren jatorririk arruntenak. Harrigarria bada ere, bizkaitar eta bilbotar kopuru handia zegoen, nahiz eta herritar guztiak etorkinak zirela uste izan. (Simón, 2023)

Fenomenoaren dimentsioak ezagutzen zituzten arren, tokiko botereek ezer gutxi egin zioten geldiarazteko, aipatu dugun moduan. Baina ez zen Bilboren arazo eksklusibo bat, industria-hiri handietan gertatzen baitzen. Andaluziako kobazuloak, Bartzelonako barrakak... Horregatik, arazo hori geldiarazteko asmoz, Espainiako Gobernuak erabat debekatu zituen horrelako eraikuntzak, 1958ko irailaren 18an BOEn argitaratutako dekretu baten bidez:

«Hirugarren artikulua [...] Bilboko Hiri Antolamenduaren eta haren eraginpeko eremuaren aurkako hutsegite larritzat joko da honako egintza hauek egitea, dagokion erakundeak lizentzia ofizialik gabe: lurren partzelazioa; eraikinen eraikuntza; ondoriozko lokalen salmenta edo errentamendua; Egintza horien erantzuleak lurren jabeak, eraikitzaileak, bizilagunak eta, edozein modutan ere, jarduera horiekin negoziatzen dutenak izango dira.»

Baina debeku horiek ez zuten askorik egin fenomenoaren hedapena geldiarazteko, etxegabetzeak eta eraispinak praktikan jartzea zaila eta oso gatazkatsua baitzen. Txabolismoak tamaina izugarria hartu zuen, eta botereak ez zeuden horri aurre egiteko prest. Bien bitartean, txabola-eremuek auzoen edo herri txikien itxura hartzen zuten, haien artean sortzen ziren kale labirintikoei eta herritarren artean eratzen ziren harremani esker.

Aurretik aipatutako 1955eko txabolen errolda formari eta edukiari dagokionez gabeziak dituen arren, Iñigo López Simónek informazio hau 1961eko Deustuko txosten baten informazioarekin osagarritzen du, eta horrela, ezaugarri orokor batzuk atera daitezke:

Txabolak eraikitzeari dagokionez, gehien erabiltzen zen materiala egurra zen, eta ondoren adreilua. Hurrengo deskribapenatarako garrantzitsuak diren bi eraikuntza mota daude. Alde batetik, txabola tipikoak zeuden, lau horma eta sabai bat zituen zurez egindako etxebizitza prekarioak. Bestalde, etxetxoak zeuden, adreiluz edo harriz egindako eraikin handi eta sendoagoak. Lehen motako txabolak gehiago gogoratzen diren arren, bigarrenetako asko zeuden.

Banderas mendia Artxandako herri txabolista garatuena zen, lurzorua familia bati erosten zitzaien. Ondoan, Cabras mendian, ez zen hainbesterik behar. Masustegi bezalako auzoak, gehienak Galiziakoak, ez ziren suntsitu eta eraikin horietatik gaur egungo auzoetara eboluzionatu zuten. (Benitez, 2021)

Eraikuntza-materialak eta etorkinen jatorria desberdinak ziren eskualde bakoitzean. San Antonio, Peñascal edo Iturrigorri, adibidez, Kantabria eta Burgosko jendea etorri zen. Etxerako harria eta adreilua erabili zituzten. Aldiz, Berrizen eta Uretamendin batez ere zurez eraiki ziren andaluziarren, gaztelarren eta extremadurarren partetik. (Benitez, 2021)

Txabola gehienetan familia bakarra bizi zen. Baina, batzuetan, aldi berean, familia bereko kideen artean edo leku beretik zetozen familien artean ere elkarbizitzen ziren. Horrek familia- eta laguntza-sareak islatzen ditu. Batzuetan etxebizitza partekatzen zuten bi familiaburuk batera lan egiten zuten.

Gizon gehienak lanera etorri zirenez, helduen batez besteko adina 37 urtekoa zen. Horrek adierazten du seme-alaba asko dituzten familia gazte asko daudela, familien hiru laurdenek bi seme-alaba edo gehiago zituztelako.

Familiaburuen artean langabezia gutxienekoa zen. Gehienek industrian lan egiten zuten, gutxi batzuek merkataritzan. Zentsuan hainbat lantoki ageri dira, horien artean euskal industriaren historiako izen handiak, hala nola Echevarría, Euskalduna edo Talleres de Deusto, baina baita tamaina txikiagoko lantegiak ere. Zehaztu gabeko lekuetan lan egiten zuten gizon batzuk ere badaude, eta horien ondoan «ijito» etiketa agertzen zen. Soldatak oso baxuak ziren, bereziki kualifikaziorik gabeko lanpostuetan. Txabolisten batez besteko soldata 23 pezetakoa zen astean. Lanbide arteko gutxieneko soldata ez zen 1963. urtera arte ezarri Espainian, eta eguneko 60 pezetakoa zen. Bi daten artean zortzi urteko tartea egon arren, datuek txabolisten soldaten errealitate gordina erakusten dute.

Erroldak emandako datuen arabera, auzo horietan hamar eskola zeuden, auzokieek eraikita, hau da, 1316 haur zeuden eskolatzeko aukerarik gabe. Horietako asko adin batera iristean hasten ziren lanean, batzuk hamar edo hamaika urterekin; Osasun zentroi dagokionez, 30 auzotatik 5etan zeuden nolabaiteko zerbitzu minimoak; Elektrizitateari dagokionez, karburu lanparak erabiltzen ziren txabola barruan eta kale argi bezala, eta suteak ohikoak ziren. Ez zegoen etxetresna elektrikorik; Ez zegoen ur hornidurarik ezta estolda sarerik. Dauden datuen artean, gehien hitz egiten den gabezia azken bi hauek ziren. Ur iturriak urrun zeuden eta ura etxeetara eramatea neketsua bihurtzen zen, izan ere, ibilbide aldapatsuez gain, ez zegoen kale pabimentaturik eta gainera euria eginez gero buztinez betetzen zen.

Emakume ezkonduen artean ia batek ere ez zuen lanik egiten. Lan egiten zuten emakumeak alargunak edo ezkongabeak ziren, edo senarrak leku ezezagunean edo

erakunde psikiatrikoetan barneratuta zituzten. Txabola-auzoetan bizi ziren emakume alargun asko nabarmendu behar dira. Azken hauen kasua nahikotan errepikatzen zen: senarra bizitzen zen bitartean emakumeak ez zuen lanik egiten eta logela edo bizitoki bat ordaintzeko kapazak ziren. Behin senarra hiltzean alargunak ez zeukan kapazitate ekonomikorik eta txaboletara joan beharra zeukan.

## **2.5 Txabolismoaren “amaiera”: Bizkaiko Urgentziako Plana**

Txabolei amaiera emateko ekimenen arrazoiak bi bertsio dute:

Lehenengoa, propaganda ofizialaren arabera da. Diktadorea 1958ko erakustazoka inauguratzera etorri zenean eta Banderas mendia txabolaz josia ikusi zuenean, gogor erreakzionatu zuen, hura berriro ikusi nahi ez zuela aginduz. (Bilbao, Plan de Urgencia Social de Bizkaia 1959, 2013)

Erregimenak propaganda eta paternalismoarekin asmo handiak zituen arren, bigarren bertsioa dago, arrazoituagoa gainera. Elizak eta komunikabideek, bereziki La Gaceta del Nortek, txaboletako bizi-baldintzak salatzeke kanpaina jarri zuten martxan. Akusazio horiek komunikabideetan eta pulpituetan oihartzuna izan zuten, Elizak Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren sustatutako gizarte-aldaketaren parte gisa. Kanpainak erantzun masiboa izan zuen, eta gutun ugari sortu zituen egunkarian txabolen arazoari buruz. Presio sozial eta mediatiko horrek lagundu zuen gaia agenda politikoan jartzen eta neurriak sustatzen Bilboko txabolen egoera larriari aurre egiteko. (Simón, 2023)

1959. urtean, *Ministerio de la Vivienda* Bizkaiko Urgentziako Plana abiarazi zuen. Estatuko laugarren urgentzia plana izan zen, jada Madril, Bartzelona eta Asturiasen egina baitzegoen. Plan horretan, 4.000 etxebizitza subentzionatu sartzen ziren, Etxebizitza Ministerioaren ordezkariak banatu beharrekoak. (Bilbao, Plan de Urgencia Social de Bizkaia 1959, 2013)

Etxebizitza subentzionatua ezarri zenetik, eta 1958aren hasieran Bilbora hedatu zenetik, ekimen pribatua eta banka inplikatu ziren, etxebizitza ekonomikoen eraikuntzaren negozioa erakargarri eginez. Horretarako, diru-laguntzak, laguntzak eta era guztietako erraztasun materialak emango lizkiekete. Horrek guztiz aldatu zuen etxebizitza politika, ordutik aurrera, banka bere agentzia propioen bidez sartuko litzatekeelako negozio horretan, eta hirurogeiko hamarkadan jarraibideak markatuko zituelako, noiz, non eta nola eraiki erabakitzen.

### 2.5.1 Otxarkoaga

Otxarkoaga Herrixka Gidatua terminoarekin eraiki zen, "etxebizitza subentzionatuak" eraikiz. Honen aitzindaria Madril izan zenez, lehendabizi Canillasen kasua aurkeztuko dut. Apunte moduan, Madrilgo eta Bilboko kasuen arteko ezberdintasuna legean dago. Izan ere Canillas "II. Taldeko Errenta Mugatuko Herrixka Gidatuan" oinarritu ziren, eta ez "Etxebizitza Subentzionatuan".

Canillas herriak bi garapen-etapa izan zituen: lehenik, Absortzio Herrixka gisa, eta, gero, Herrixka Gidatu gisa. Absortzio Herrixkaren etapan, OSHko zuzendariaren kargupean, auzokideek eraiki zituzten etxeak. Auzokide horiei «dominguero-koadrila» deitzen zitzaien igandeetan jarduten zutelako. Gehienak igeltserotzan esperientziarik ez zuten jornalariak ziren, baina hori zen etxea izateko ametsa betetzeko modu bakarra. (Márquez, 2015)

Herrixka Gidatuaren etapa amaitu zenean, INVk bultzatutako Absortzioko Herrixkako bi solairuko etxe zaharrekin kontrastea egiten zuen, azken hauek lorategi edo baratze txikiak baitzituzten. Eraikin berrietako okupatzaileak *Sección Femenina* buru zuen bulego batek aukeratu zituen. Bi aukera zituzten beren etxeak erosteko: hasierako kuota ordaintzea, balioaren laurdena, eta gainerakoa berrogeita hamar urteko epean, edo lehen kuota hori haien lan orduen bidez ordaintzea. Horrela, arkitekto batek gainbegiratuta, 900 etxebizitza eraiki zituzten azken prezioa merkeagotzearen truke. 1.500 familia inguruk aukeratu zuten metodo hori, eta hortik ateratako eraikinak apaingarri askorik gabeko egitura handiak ziren, ideia modernistei jarraituz. Herritarren helburua lortu zen arren, laster sortu ziren arazoak eta protestak. Sabaiak hondoratu egiten ziren, filtrazioak zeuden eta hormek pitzadurak zituzten. Kaleetan ez zegoen espaloirik, lokatza, zikinkeria eta zaborra pilatuz. Inguruetan ia ez zegoen hiri-bizitzarik, eskolarik, osasun-zentrorik edo gertuko merkaturik. Batzuetan, ez zegoen jateko dendarik ere, kalitate txarreko produktuak eta higiene- eta osasun-kondizio eskasetan saltzen zituzten barraka ahulek izan ezik. (Rocha, 2021)

Behin aitzindaria ezagutua, Otxarkoagarekin hasiko naiz. Orduko Zuazagoitia Bilboko alkateak eta Ruiz Salas Probintziako Diputazioko presidenteak hainbat elkarrizketa izan zituzten Francorekin. Horren ondorioz, egun gutxitara Bilbora iritsi zen Arrese ministroa, 3.000 etxebizitzatarako lurzorua aztertze asmoz. Bizkaiko Urgentziazko Planak Otxarkoagako herrixkaren bidez txabolismoa eta etxebizitza-defizita desagerrarazi nahi

zituen, eta, horrez gain, Bilboko auzoetako hirigintza hobetzeko intentzioa zuen. (Bilbao, Otxarkoaga, 2013)

Nahiz eta azalpen hau askotan errepikatu, sinplistegia da. Bi arrazoi gehiago izan ziren: Lehenik eta behin, motibazio ekonomiko bat dago eraikuntzaren sektorea suspertzeko. Bigarrenik, edozein lurralde-antolamenduren azpian, politika demografiko bat dago, gizarte-politika zabalagoaren isla. Argi dago Otxarkoaga auzoa 1960an eraikitzearen helburua gizartearen haserrea lausotzea zela, faktore eragile garrantzitsuenetako bat neutralizatuz, hala nola etxebizitza falta. Gainera, arazoa hiritik kanporatu zen talde sozial hau isolatuz, Otxarkoaga hiriko zentrotik 3km-tara zegoen eta. Honetaz gain, bi arazo konpondu nahian, hau da, etxebizitza eta diru falta, auzokide asko lanean jarri zituzten, «haien» etxeen eraikuntzetan. (Paredes eta López, 1991)

Arrese, ministro gisa, 1959ko azaroan itzuli zen hirira; alde batetik, Otxarkoagako lursaila erosteko, eta, bestetik, Batzorde Eragilearekin biltzeko: Gizarte Urgentziazko Plana martxan zegoen, eta Otxarkoagak errealitate bat zirudien. Madrilgo esperientzian oinarrituz, Etxebizitza Ministerioak ordura arte Bilbon ezezaguna zen hirigune mota bat ezarri zuen, INVren babespean diruz lagundutako DGRD erakunde sustatzailean oinarritua. Arkitekto zuzendariak kostu ekonomikoaren muga bat zuen proiektuak idaztean, eta, gainera, sustapenerako baldintza ekonomiko batzuk ematen ziren. Ministerio-planen eta haiek finantzatzeko formulen arabera egiten zen lan une oro. (Bilbao, 2008)

Eraikuntza amaitu ondoren, giltzak jabetza-titulurik gabe entregatzen ziren, etxebizitzaren premiazko okupazioa ez atzeratzeko. Herrixka Gidatuaren antolaketa, lanak bukatuta zeudenean eta etxebizitzak onuradunei ematen zitzaizkienean amaitzen zen.

Bi premisa besterik ez zeuden: bata, proiektua ahalik eta merkeena izatea, eta bestea, berehala eraikitzea.

Proiektua nukleoetan banatzen zen, bost nukleo finkatuz eta horietatik lau etxebizitzetara bideratuz. Beraz 3.672 etxebizitza egin ziren 18.600 biztanleentzako eta nukleo bakoitzeko 4.800 biztanle zeuden. Azkeneko nukleo hori nukleo nagusia zen, eraikin orokorrak kokatzeko: bulegoak edo administrazio-bulegoak, merkataritza-zentroa, merkataria, ikuskizun aretoa eta parrokia. Guztira, hiru merkataritza-zentro, hiru eskola, ikuskizun-aretoa duen erlijio-zentro bat, parrokia-eliza bat, eta zenbait haurtzaindegi proposatu ziren. Hiru premisa zeuden hirigintzan: lurrari egokitzea, orientazioa eta

etxebizitzaren arteko zabaltasunik handiena. Hala ere urbanismoak ez zuen izan garrantzirik, garrantzitsuena etxebizitza kantitate handia eraikitzea baitzen. 40-50 m<sup>2</sup>ko bost etxebizitza mota zeuden, logela kantitatearen arabekoak. 3 solairuko altueratik 6 solairuetara alternatzen zuten blokeak, Etxebizitzaren Institutu Nazionalak baimendutako gehienekoa. (Bilbao, 2013)

Proiektu horretan parte hartu zuten arkitektoek hain herri handia eratzea kaltegarria izango zela zioten, suburbioak sortzeko arriskua baitzegoen. Esperientziak erakutsi zuen herri berean landa-ingurune bateko jendea sartzean denbora beharko zutela elkarrekin bizitzen ikasteko. Etxebizitza Ministerioaren berehalako eta epe laburreko konponbideei buruzko zalantza handiak sortzen zituen. Bilboko arkitektoek gizarte-integrazioarako eraikinak egitea proposatu zuten.

Madriletik ezarritako premiseak edozein proposamen baldintzatuko zuten azkenean: Bilboko arkitektoek instalazioen proiekturako planteatutako ideien aurrean, Herrixka Gidatuak ezezkoa ematen zuen, ahalik eta kostu gutxien izateko.

Herriakako obrak hasi zirenean, ideia bat azaldu zen prentsan: etxebizitzaren arazoa Otxarkoagako etxebizitzari esker konponduko zen eta herri horrek sortutako itzaropenen berri ematen zuen. Baina, bestalde, 25.000 etxebizitzako defizita ere onartzen zen, egunero handituz zihoan zenbakia. Urtebete ondoren 3.675 etxebizitza eraiki ziren, 114 bloketan. Ordura arte ez zen horrelako eraikuntzarik egin Bilbon. Herria hiriko tren baten bidez konektatzea ere proposatu zen, baina ez zen inoiz lurreratu. (Bilbao, 2008)

Otxarkoaga eraiki ondoren, poligono mota hauekin jarraitzeko asmoa zegoen *Ministerio de la Vivienda*ren aldetik. Arrakasta izan baizen 18.600 pertsonentzako eraikinak epe motzean sortzea.

Behin blokeak eginda, 1961eko otsailan, *Ministerio de la Vivienda* Ingelesen Zelaiko txabolak eraistea eta herrixkara eramatea proposatu zuen, Espainia osoan eraginkortasun eta propagandarako eredu gisa proiektatzeko. Txabolak Eraisteko Planaren bitartez, Armadak dinamitarekin eta eskabadoreekin txabolak eraitsi zituen.. Guztira 1.589 txabola bota ziren, eta 2.155 familia poligonoetara eraman zituzten, Gizarte Urgentziazko Planean ezarritako jarraibideak betez. (Primera parte de la operación derribo de chabolas: veinticinco familias que vivían en La Campa de los Ingleses fueron trasladadas a Ocharcoaga, 1961)



Otxarkoaga, bere osotasunean, Bilboko Udalarari lagatu zitzaion, *Viviendas Municipales S. en C.*-ren bidez, 1961eko uztailaren 20ko Dekretua betez. Otxarkoagako kasuan, zuzeneko eskurapeneko lurzorua zenez, ez zen aldaketarik egon kostuetan, eta bizkor gauzatu zen. Horrek esan nahi du Bilboko Udalak lurzorua eskuratu ahal izan zuela desjabetze-arazoei edo kostu gehigarriei aurre egin gabe. Ondorioz, eraikin osagarri guztiak egin ahal izan ziren. (Bilbao, 2008)

Hala ere, egoera bestelakoa izan zen beste Herrixka Gidatu batzuetan. Kasu batzuetan, desjabetzearen balioa garestia izan zen, eta, horren ondorioz, INVk 1962an hasi ez zen edozein obra eraiki gabe uzteko agindua eman zuen. Horrek esan nahi du herrixka gidatu asko osatu gabe geratu zirela, hasieran planeatutako eraikin osagarririk gabe.

Txabolisten lekualdaketa gogorra izan zen, izan ere ez zeuden ohituak eraikin barruko bizitza egitera. Proiektuaren egileen arabera, txabolismoa desagerrarazi eta etxebizitzetan eta komunitatean bizitzen irakatsi nahi zen. Gobernu Zibiletik, Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak prentsa-kanpaina egitea proposatu zuen, giroa prestatzeko eta herri batean bizitzeak dituen abantailak ulertarazteko. (Grau, 1961)

Txabolista askorentzat, lekualdaketa zaila izan zen, atzean uzten zituzten eraikuntza asko sendoak baitziren, eta aurrezki guztiak han inbertitu baitzituzten. Hiriburuarekiko urruntasunak eta udal- eta ministerio-agintarien arteko desadostasunek herri hori degradatzera bultzatu zuten. Herritarrek instituzioen abandonua sentitzen zuten, eta Bilboko gizarteak auzo horrekiko axolagabetasuna erakusten zuen. (Rocha, 2021)

Gainerako auzo periferikoetan aldaketa azkarrak izan ziren urbanizazioaren ondorioz, eta zonaren egituraren aldaketak egiten ari ziren. Hala ere, periferiak ez zuen ordenarik, eta eraikuntza-egitura irregularra eta heterogeneoa zuen.

Bestalde, Otxarkoagak, hasieran, guztiz kontrakoa adierazten zuen egitura antolatuagoa eta planifikatuagoa zuen. Hala ere, arazoak sortu ziren Otxarkoagan, eraikinetan kalitate txikiko materialak erabiltzeagatik. Gainera, auzokoak material tradizionalak erabiltzen jarraitu zuten eraikuntzak eguneratu beharrean, izan zitzaketen ondorioen beldur baitziren.

Arazo horiek herrixkari eragiten jarraitu zuten historian zehar, eta Otxarkoagaz hitz egiten zenean, gainerako sare periferikoaz bezala, ez zuten Bilbo bezala kontaktzen. Herritarren erantzuna Familien Elkarte sortzea izan zen. Elkarte horren lana, oso lotuta egon zen

erakunde publikoek, legez behartuta, alde batera utzi zituzten hirigintza-erreformak lortzeko ahaleginekin.

1964an, Bilboko Askapenaren XXVII. urteurrenean, Erregimen Frankistaren jaieguna zela eta, Franco hiriarekin nolabaiteko lotura zuten zenbait ministroekin batera izan zen. Egun berean izan zen Otxarkoagako herrixkaren inaugurazioa, erregimenaren propagandak diktadorearen beste ekimen bat bezala aldarrikatu zuen, ustez txabolismoaren eta etxebizitzaren defizitaren arazoa konpondu zuena. (Simon, 2014)

Hala ere, elkartasun-sareak haustea ez zen izan arazo bakarra. Bizilagunak etxeetan bizitzen hasi eta urtebetera, Udaleko Arkitektura Sailaren txosten batek etxeen %80an kalteak izan zirela adierazi zuen. Arazorik larrienak hezetasuna, pitzadurak eta sukalde akastunak ziren. Instalazio elektrikoak eta eraikuntzan erabilitako materialen kalitatea eskasak ziren, eta eraikuntzako lanak azkar egitearekin batera, emaitza kalitate txarreko etxebizitzak izan ziren. Bizilagunek ez ziren konponketa lanak egin behar izan zituzten bakarrak, Udalak, giltzak entregatu eta gutxira, hamahiru milioi pezetako aurrekontua zuten obrak egin behar izan zituen. (Bilbao, 2008)

Etxebizitzak ez ezik, auzoak ere gabezia ugari eta larriak zituen. Ez zegoen eskolarik, ez negoziarik ezarrita, lorategiak zahartuta zeuden, urbanizazioa erdizka eraikita zegoen, eta auzoko sarbideak eta komunikazioak askotan ilogikoak ziren. Eremu komunitarioak, hala nola zinema eta eremu publikoa, osatu gabe zeuden. Otxarkoagak bizi-baldintzak hobetu zituen txabola-auzoekin alderatuta, baina ezin daiteke esan bizilagunak baldintza duinetan bizi zirenik.

Lehen urteetan, Otxarkoaga erabat baztertuta zegoen. Herritarrek ez zuten garraio publikorik eta kaleak zolatu gabe zeuden. Egoera hori 1966an hasi zen konpontzen, bizilagunek bost urte zeramatzaten Otxarkoagan, eta marginalizazio sentimendua orokortua zen haien artean. Auzoaren diseinua kaotikoa zen, kale bakarra zolatu zen eta haren ingurua etxebizitza blokeak pilatzen ziren antolaketa logikorik gabe.

Erakundeek, txabolekin bezala, entzungor egin zuten. Auzoan ez zen ez klinikarik ez ambulatoriorik eraiki, eta osasun-zerbitzuak lehen laguntzako postu batera mugatzen ziren. Egoera horren aurrean, herritarrek bizitza kalean egiten zuten, mendi-hegaletan egin izan zuten bezala. Horrela sortu ziren bizilagunen arteko harremanak, eraikin altu eta etxe orratzetan bizi balira ezinezkoa izango zirenak. Beste behin ere, erakundeen

utzikeria sentitu zuten, Bilboko gizartean axolagabekeriarekin batera. Beraz, auzotarrek borroka egin behar izan zuten egoera zailari aurre egiteko.

1968an, auzo-elkarte bat sortu zen auzo osoaren arazoei aurre egiteko. Hurrengo hamarkadetan, auzokoen etxebizitzak eta zerbitzuak hobetzeko eta askatasun indibidual eta politikoak lortzeko borrokatu zuten. Otxarkoagaren izaera gatazkatsua ez zen soilik auzoaren egoeraren ondorioa izan, baita bertako biztanleen ezaugarri soziologikoena ere. Txutxi Paredes auzoko bizilagunak ongi adierazi duenez: «Bestela, zergatik izango litzateke polizia-etxea eraikitako lehen azpiegitura? Lehena eta bakarra. Zergatik erabaki zuten lehenbizi polizia-etxe bat eraikitzea?». (Bilbao, 2008)

Otxarkoagako Auzo Elkarteak (AFO) oso paper aktiboa izan zuen frankismoaren azken urteetan, baita diktadorea hil ondoren ere. Hasieran, askatasun kolektiboen aldeko eta auzoaren baldintza prekarioen aurkako ekimenak bultzatu zituzten. 1977an, Falangearen lokala okupatu eta bizilagunentzako topaleku bihurtu zuten. 1978an, bizilagun-talde bat Udaletxean aurkeztu zen auzoaren erreforma bultzatzeko, liskarrak sortu zirelarik poliziarekin, eraikinean sartzea ukatu baitzieten. Handik urtebetera, bizilagunak Madrilera joan ziren, eta Etxebizitzako Idazkari Nagusiarekin elkarrizketa egin eta beraien eskariak helarazi zizkieten. Arazoei aterabidea bilatzen presionatzeko, Udalari zor zitzaion alokairuaren ordainketa etetea erabaki zuten. Azkenik, 1981ean, hainbat eskaera, adierazpen eta ekintzari esker, auzoa berritza lortu zuten. (Otxarkoaga, 2023)

## **2.5.2 Uretamendi**

Bizkaiko Urgentziazko Planeko 4.000 etxebizitzari buruzko hasierako dekretuaren barruan, Otxarkoagako herrixkaren ondoan (3.672 etxebizitza), Arraiz mendian zegoen Uretamendi auzoaren txabolismoaren arazoa konpontzea planteatu zen. Txabolisten egoera tamalgarria zela eta, prentsak egindako presioaz gain, herritarrek berek egindako salaketak ere jaso ziren, azken hauek instituzioen abandonoa zalatzen zuten. Hala ere eragile garrantzitsuena Jesuitak izan ziren. 3 apaizek, auzokideen onarpena izan zuten eta herri-ekimena suspertu zuten. (Bilbao, 2008)

Uretamendin eraikuntza-premisa berriak planteatu ziren, eta txabolisten eskulana aprobetxatu zen, 300 lanordu eman baitzituzten haien etxebizitza eraikitzeko. Bi auzokide mota nahasten ziren, betidanik nekazariak izan ziren horiek eta eraikuntzan lan egiten zutenak. Eraikuntza duin horiek bilbotarren aurrezkien dohaintzei eta Gizarte Urgentziazko planari eta etxebizitza subentzionatuen modalitateari esker eskuratzen

zituzten. 1.500 auzokideentzako, 400 etxebizitza eraiki ziren, blokeen kokapena eskola eta eliza inguruan zegoen. Jesuitek San José Obrero parrokia eraiki zuten eraikitzaile gisa, Gizarte Urgentziako Planak ematen zituen onurak eskuratu ahal izateko. Erabilitako material tradizionalak merkeenak izan ziren, Jesuitek edo haien ikasleek emanak, eta Gizarte Urgentziako Planak ematen zituen erraztasunei esker lortutakoak. Etxebizitzak eraiki ahala, txabolak suntsitu egiten ziren, Planaren beste premisetako bat betez. (Bilbao, 2013)

### **2.5.3 Altamirako inmobiliaria**

Aitzitik, Kobetas mendiaren magalean beste proiektu bat proposatu zen, Gizarte Urgentziako Planaren barruan sartzen zena, baina Otxarkoaga (instituzioek bultzatuta) eta Uretamendirekin (elizak bultzatua) ezberdintasunak zituena. Proiektu honen helburua 1.000 "etxebizitza subentzionatu" eraikitzea zen, azpierrentamenduaren arazoari aurre egiteko intentzioarekin.

Proiektu hori ekimen pribatuari esker sortu zen, "Altamira Inmobiliaria S.A" aren bitartez. Ekimen honen propagandaren arabera, etxebizitzak legeak adierazitako baldintzak baino baldintza hobeetan ematea proposatzen zuen, balizko bezeroa erakartzeko.

Proiektua periferiako poligonoetan oinarritutako auzoen alde zegoen. Testuinguru horretan, kostu txikiko lursail urbanizatu bat ezarri zen, etxebizitza-multzoak eraikitzeko, eraikin osagarriak barne, auzoa guztiz autosufizientea izan zedin.

Horretarako, 60.000 m<sup>2</sup>-ko azalerako landa eremua erabili zen, guztiz aldapatsua zena. 5 fasetan egin nahi zen, 200 etxebizitza fase bakoitzeko. Bloke hauek 6 solairukoak ziren eta 72 edo 82 metro karratuko azalerakoak. (Bilbao, 2013)

Masustegi parean dagoen auzo hau mendiko maldan dago. Ondorioz, blokeak ere maldatik banatuta daude. Gaur egun igogailuak daude portal batetik bestera igarotzeko. Beste alde batetik, auzokideek zenbait urtetan autobusa auzo horretara heltzeko eskatu zuten. Baina oraindik ere, nahiz eta bi autobus linea izan, ordubete behar da Bilboko zentrora jaisteko. (Barrios, 2019)

Eskola eta Eliza dezentea izateko itxaron behar izan zuten. Eskolaren kasuan, ia ez zen bere existentziarik egon. (Altamira, un barrio de 5.500 habitantes y con diez mil dentro de poco, 1963)

### 3. ONDORIOAK

Ikus daiteke etxebizitzaren arazoa gerra zibila baino lehenagoko arazoa izan zela. Behin gerra zibila igarota, diktadurak bere ideologia txertatzen saiatu nahian, hamarkada oso bat igaro zuen etxebizitza dotoreak eraikitzen. Baina ekintza honek emaitza gutxi ekarri zuen eta 50. hamarkadan arkitektoek milaka etxebizitza denbora gutxian eta merke zelan egin hasi ziren eztabaidatzen. 1960tik aurrera sektore publikoak bere ezintasuna onartu zuen gero eta handiagoa zen eskaerari erantzuteko eta erraztasunak eman zizkion sektore pribatuari eginkizuna bere gain har zezan. Jabetzako etxea produktu bezala planteatu zen eta alde batera utzi zen etxe tradizionala. Etxe garaiak hasi ziren egiten eta lorategien ordez asfaltozko kaleak egin ziren.

Ondorioz, frankismoaren diktaduraren azken urteetako etxebizitza-politika hainbat ezaugarriak definitzen zituzten. Inflazioa oso garrantzitsua izan zen, alokairuekin alderatuta hipoteka-ordainketak aukera hobea bihurtu baitziren. Horrek jabetzaren pentsaera kontserbadorea sustatu zuen.

Bizipen kontserbadore hori, ordea, eraikinen eta eraikitako urbanizazioen kalitate eskasa ikusita, lausotu egin zen. Hutsune horiek izan ziren auzo-mugimenduaren eragile nagusiak, eta eragile hauek bizi-baldintza hobek eta jabetzak modu eraginkorragoan administratzeko helburuarekin eraiki ziren. Arazo horiek hainbat hamarkadatan iraun zuten, eta eredu horren pean sortutako auzoak herritarren arteko borroka gune bihurtu ziren hirurogeiko hamarkadatik demokrazia sartu zen arte.

Epe luzeko hipotekek ere arazoak sortu zituzten OSHren finantziatorako, dirua biltzeaz eta etxebizitza-multzoak kudeatzeaz arduratzen zen eta. Finantzazio eskasiak etxebizitzaren eraikuntza txarra eta gabeziak agerian utzi zituen, eta horrek zailtasun gehiago ekarri zituen jabetzak finantzatzeko eta mantentzeko.

Hala ere, orokorrean, badirudi frankismoak zuen helburu bat lortu zela, hots, erdi mailako klasea sortu eta egonkortu zen. Gainera, horrek etorkizuneko trantsizioari erraztasunak eman zizkion, izan ere, klase ertaina sendotuta egotea ezinbestekoa izan zen demokrazia parlamentarioari aitortza emateko garaian.

Ondorioz ere, jakin badakit etxebizitzaren politika gai konplexua dela. Lehenengo Etxebizitza planaren ostean 11 gehiago jarri ziren martxan. Gainera, aipatzen ditudanez gain eragile gehiago daude, hala nola Aurrezki Kutxak edota Diputazioa, bai eta

lurzoruari dagokien legeak ere. Bizkaiko Urgentziazko Planera mugatu naiz, nolabait honi amaiera emateko.

Jabetzan oinarritutako pentsaera horrek gaur egunera arte iraun du. Hala ere, badirudi gazteek ez dugula horrelakorik biziko, izan ere ez zaigu arraro iruditzen 4 pertsona ezezagun Torre Madariagako pisu baten elkar bizitzea, logela bateko alokairua ordaintzen. Berriro ere, inflazio garaian, Errentamenduen Legea martxan jarri da, prezioak mugatzeko asmotan. Bi garaiak konparatuz gero, ikuz dezakegu bi garaietan merkatuak arazo bat sortzen duela, eta bi gobernu ezberdinek interbentzionismoa erabiltzen saiatzen direla espekulazioak dakarren arazoari aurre egiteko.

## **Bibliografia**

Albert Carreras, Xavier Tafunell. (2005). *Estadísticas históricas de España, Siglos XIX-XX*. Bilbao: Fundación BBVA.

Albert Carreras, Xavier Tafunell. (2010). *Historia económica de la España contemporánea (1789-2009)*. Espainia: Crítica.

Altamira, un barrio de 5.500 habitantes y con diez mil dentro de poco. (3 de Septiembre de 1963). *La Gaceta del Norte*.

- Areilza, J. M. (Intérprete). (8 de Julio de 1937). *Homenaje al Glorioso Ejército y Milicias Nacionales*. Teatro Coliseo Albia, Bilbao.
- Arrese., D. d. (4 de 4 de 1941). Chozas no: casas . *La Gaceta del Norte*.
- Azaola, J. M. (1976). *Vasconia y su destino*. Madrid: Revista de Occidente.
- Barrios*. (2019). Gurelurra: <http://gurelurra.org/conocenos/barrios/>
- Benitez, J. (2021). *Las casitas de hojalata*. Bilbao: El Gallo de oro.
- Bilbao, L. (2008). *El poblado dirigido de Otxarkoaga: del plan de urgencia social al primer plan de desarrollo (La vivienda en Bilbao 1959-1964)*. Bilboko udala.
- Bilbao, L. (2013). *El proyecto de Altamira*. Bilbaopedia: info. <https://www.bilbaopedia.info/el-proyecto-altamira>
- Bilbao, L. (2013). *El proyecto de Uretamendi*. Bilbaopedia: <https://www.bilbaopedia.info/el-proyecto-uretamendi>
- Bilbao, L. (2013). *Otxarkoaga*. Bilbaopedia: <https://www.bilbaopedia.info/otxarkoaga>
- Bilbao, L. (2013). *Plan de Urgencia Social de Bizkaia 1959*. Bilbaopedia: <https://www.bilbaopedia.info/plan-urgencia-social-bizkaia-1959>
- Bringas, J. M. (1964). Veinticinco años de construcción de viviendas. *Arquitectura*, num66.
- Carbajal, A. F. (2003). La política de vivienda en España durante el Franquismo. *CIUDAD Y TERRITORIO Estudios Territoriales*, 639-654.
- Díez, Gullón. (2018). *Sistema de Derecho civil: vol. II*. Espainia: Tecnos.
- Ejemplar dedicado a: 70 años de la guerra civil : guerra, posguerra y memoria. (2007). *Bidebarrieta: Revista de humanidades y ciencias sociales de Bilbao* , N°. 18, 345.
- El problema de la vivienda en Bilbao. (18 de 3 de 1942). *La Gaceta del Norte*.
- Elena Martínez Ruiz, Pilar Nogues Marco. (2014). *Crisis cambiarias y políticas de integración en España 1880-1975*. España: Estudios de Historia Económica.
- Fonseca, J. (1945). *El problema de la vivienda, Ministerio de Trabajo*. Madrid: Escuela Social de Madrid.

- García, F. J. (2013). *Grupo San Ignacio de Loyola*. Bilbaopedia : <https://www.bilbaopedia.info/grupo-san-ignacio-loyola>
- Gorostiaga, A. M. (1988). La política industrial del franquismo. *Ekonomiaz*, 301-324.
- Grau, J. (Dirección). (1961). *Ocharcoaga* [Película].
- INE. (2020). *1945-1975*. INE.es: [https://www.ine.es/expo\\_anuarios/1945-1975.html](https://www.ine.es/expo_anuarios/1945-1975.html)
- Instituto Nacional de la Vivienda. (19 de 4 de 1939). *La Gaceta del Norte*.
- Jesús M.<sup>a</sup> Paredes Gutiérrez y Andrés López Ibarro. (1991). *Estudio demográfico de Ocharcoaga*. Área de Relaciones y Educación del Ayuntamiento de Bilbao.
- Ley de Arrendamientos Urbanos. (s.f.). En *Decreto 4104/1964, de 24 de diciembre*. BOE.
- Márquez, R. (11 de Abril de 2015). *Poblado Dirigido de Canillas*. Exposición Canillas: <https://exposicioncanillascabrini.wordpress.com/category/barrios-de-canillas/poblado-dirigido-de-canillas/>
- Muñoz, F. J. (2019). Vivienda pública y posguerra en Bilbao. Experiencias y reflexiones en torno al hábitat mínimo durante los primeros años de la dictadura franquista. *Sancho el Sabio*, 59-100.
- Otxarkoaga, A. d. (2023). *Historia A.F.O.* . Otxarkoaga.com: <https://www.otxarkoaga.com/afo/historia-de-la-afo/>
- Preston, P. (2022). *La política de la venganza: el fascismo y el militarismo en España en el siglo XX*. Espainia: Península.
- Primera parte de la operación derribo de chabolas: veinticinco familias que vivían en La Campa de los Ingleses fueron trasladadas a Ocharcoaga. (13 de febrero de 1961). *La Gaceta del Norte*.
- Ramos, G. R. (1991). Tranvías y conflictividad social en Barcelona (marzo de 1951): actitudes políticas y sociales de una huelga mítica. *Historia contemporánea*, 203-220.
- Rocha, S. (2021). *Todo el odio que tenía dentro*. Felguera ediciones.
- Sambricio, C. (1983). *Cuando se quiso resucitar la arquitectura. colección de arquitectura* . Murcia: Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos.



- Sambricio, C. (1999). La vivienda en Madrid, de 1939 al Plan de Vivienda Social, en 1959. En C. Sambricio, *La vivienda en Madrid en la década de los cincuenta: el Plan de Urgencia Social* (págs. 13-84). Madrid: Electa.
- Santas, A. (2014). La vivienda racional en el Gran Bilbao. *Bidebarrieta*(15), 312-342.
- Simon, I. L. (2014). Otxarkoaga, un caso de poblado dirigido en bilbao. De la chabola a la marginación urbana en el desarrollismo franquista. *Historia Contemporanea*(52), 309-345. <https://doi.org/10.1387/hc.15746>
- Simón, I. L. (2023). *Este barrio de barro: Una historia del chabolismo en bilbao*. Elkar.
- Táboas, D. L. (2020). *De la chabola al barrio social: Arquitecturas, políticas de vivienda y actitudes sociales en la Europa del Sur (1920-1980)*. Espainia: Comares Historia.
- Urbanos, T. 3. (6 de Ekaina de 2018). *Uji*. [http://mayores.uji.es/wp-content/uploads/2018/05/2017-2018.Tema-3-Arrendamientos\\_2018.pdf](http://mayores.uji.es/wp-content/uploads/2018/05/2017-2018.Tema-3-Arrendamientos_2018.pdf)
- Ustarroz, P. L. (1976). *La política de vivienda de 1939 a 1970. Análisis en el Gran Bilbao*. Bilbao: Universidad de Deusto.
- Van-Halen, J. (2017). *La política de la vivienda en España: una aproximación histórica*.
- Vidal, J. C. (1995). Sector exterior y crecimiento industrial. España y Europa (1939-59). *Revista de Historia Industrial*, 99-146.
- Zaratiegui, García . (2017). José Luis Arrese, ¿falangista o tradicionalista? *Studia Historica. Historia Contemporánea*, 35, 497–519. <https://doi.org/10.1387/hc.15746> Recuperado a partir de <https://revistas.usal.es/uno/index.php/0213-2087/article/view/17990>